

Kultura

Jose Julián Bakedano: "Atsegina da bizi guztian zehar egin duzun lanagatik esker ona agertzen dizutela ikustea". > 12



IBILALDIA



Ibilaldia bizi Dagigun!

Ibaizabal eta Kurutziaga ikastolek Bizkaiko ikastolen jaia antolatuko dute, domekan, Durangon. Sei kilometroko hiri-ibilbidea eta bost gunek prestatu dituzte. > **Gehigarria**



935 sinadura eta mozioa aurkeztu dituzte Abadiñon kontsulta eskatzeko

Abadiñoko udal gobernuak Arau Subsidiarioak aldatzeko asmoa du Murueta auzoko lursail bat merkataritzarako eremu izendatzeko, eta arauok aldatzeari buruzko herri galdeketa burutzea eskatu dute ia mila abadiñarrek. Hainbat merkatarik, sindikatuk eta elkartek osaturiko Kaleartean Plataformak aurkeztu ditu kontsultaren aldeko 935 sinadurak eta mozioa, udaletxean. > 3

“Bazkide berriak behar ditugu aurrera egiteko; energia eta jende berria behar dugu” > 10

Cristina Luengo | Andaluziako zentroa



GONBIDAPENA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

Ekainaren 3tik 5era

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

- 3 pabiloi tematiko
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

gonbidapen hau moztu eta azokaren sarrerari aurkeztu

P dohainik

Ficobara, zatorz trenean!
(Irun-Ficoba geltokia)

euskotren

ANTOLATZAILEA

FICOB
IRUN. GIPLUZKOA
www.ficoba.org

Durango > 2

Txakurren adopzioa sustatzeko jaia antolatuko du Durandogek

Zaldibar > 9

Ospitaleko lursaila udalaren esku utziko du Jaurilaritzak

Zornotza > 4

Jan Alai pintxo lehiaketako sari banaketa, domekan

Mallabia > 8

Adolfo Jainaga trikitilaria omenduko dute ekainaren 5ean

Herririk herri

Durandog: “Adopzio batek bizitza bat salbatu dezake”

Ekainaren 5erako txakurren adopzioaren aldeko jaia deitu du Durandogek



Durandog elkarteak txakurren eta pertsonen elkarbizitzaren alde dihardu lanean. Lehiur Elorriaga

DURANGO Markel Onaindia
Txakurren adopzioa sustatzeko jaialdia egingo du Durandog elkarteak ekainaren 5ean, eta, horrela, animalia horien lagunen bilgune bihurtuko da Durango. Landako Gunean egingo da berbalai, erakustaldi eta tailerrak jasoko dituen jaialdia. “Adopzio batek bizitza bat salbatu dezakeelako, aukerarik onena adopzioa da”, esan dute antolatzaileek. Beraz, txakurrak erosi baino, adoptatzeko deia egin dute. Izan ere, animalien tratua txarra eta abandonua “arazo larriak” direla uste dute Durandogekoek. Euskal Herriko 15-20 bat elkartek parte hartuko dute jaialdian.

10:00etatik aurrera, doako informazio eta orientazio berbalaiak eskainiko dituzte, obediencia erakustaldiak, umeentzako tailerrak... Gainera, adoptatutako txakurrei txertoa doan

ipini ahaliko zaie, eta janaria eta mantak batuko dituzte beharra dutenei laguntzeko. Eguerdian herri bazkaria egingo dute.

Animalien tratua txarra eta abandonua “arazo larriak” direla uste dute Durandogekoek

Berbaldiak eskainiko dituzte, obediencia erakustaldiak, umeentzako tailerrak...

Jasoneri omenaldia
Durandog elkarteak sortu zen egunean bertan bultzatzaileetako lagun bat hil zen, eta hura gogoratzeko aprobetxatuko dute

jaialdia, egunaren hasieran burutuko duten ekitaldi batez. Natalia Zuazua elkarteko ki-deak azaldu du eurentzat eredu zela: “Jasonek asko lagundu zigun, eta animaliekiko zeukan maitasuna eredu da guretzat. Badakigu hemen egotea gustatuko litzaiokeela, eta hemen egon ez arren, bera presente egotea gura genuen”.

Txakurren aldeko elkarteek laguntzeko asmoz, eskumutur-rekoak eta kamisetak salduko dituzte egunean zehar, eta zozketa bat ere egingo dute jaiko gastuetarako.

Txakurren Pintxopotea
Aurretik, hilaren 3rako, Txakurren Pintxopotea deitu dute. Pol-Pol, Gorbea eta Maite tabernetan izango da, eta Antonio Marquez antolatzailearen esanetan, txakurrentzat prestatuko dute pintxoa.

Herriaren Eskubidea, EAJri kontu eske

“EAJk irain eta mehatxuekin eraso egin zigun”

DURANGO M. O.

Durangoko Herriaren Eskubidea alderdiak oharra bidali du prentsara, aurrekontuaren inguruko osoko bilkuran izandako eztabaida baloratze-ko. “EAJren partetik jasotako tratua zuzentzea eskatzen dugu. Irain eta mehatxuekin eraso egin zigun bilkuran”. Azaldu dutenez, “gardentasun eta proiektu falta” ikusi zuten gobernu taldearen udal aurre-

kontuan, eta esan dute salaketa egitearren jaso zutela EAJren “eraso” hori.

Oharrean berretsi dute aurrekontua ez dela parte-hartzaile izan, gobernuak ez dituelako herritarrentzako foro zabalak antolatu. Alderdien arteko batzarrak aldebikoak izan direla kritikatu dute, “bakoitzaren tarta zatia negoziatzeko”, eta horregatik, “gardentasun bako” prozesua izan dela irizten diote.



Herriaren Eskubidea alderdiko zinegotziak, azken osoko bilkuran.

Prekarietatearen aurkako protestak deitu ditu LABek

Bihar Bilbon da protesta, eta 3an Durangon

DURANGO M. O.

Lan erreformak hasi zirenetik hamar urte beteko direla adierazi du LABek, eta langileei “benetako krisia” eragin dietela. Adibidez, epe luzeko langabezia %19tik %43ra pasa dela esan du, edota diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak %63 hazi direla. “Egoeraren larritasuna” ikusita, prekarietatearen aurkako protestak deitu ditu. Bihar, manifestazioa egingo du

Bilbon, 17:30ean, udaletxean hasita. Ekainaren 3an ABLEak (Aldi Baterako Lan Enpresak) ixtea eskatuko du Durangon, udaletxetik 11:30ean hasita.

Gainera, “egoerari buelta emateko” alternatibak plazaratuko ditu LABek: 1.200 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko lan astea, lan osasuna ziurtatzea, euskaraz lan egiteko eskubidea eta neurri horiek emakumei bermatzea.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko maiatzaren 27a
14. urtea - 634. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Birkalifikazioaz euren iritzia ematea eskatu dute 935 abadiñarrek

Muruetak birkalifikazioaz herri galdeketa eskatuz, bi astean 935 sinadura biltzea lortu dute

ABADIÑO Itsaso Esteban Abadiñon Arau Subsidiarioak aldatzeko asmoa agertu zuen udal gobernuak, Murueta auzoan lursail bat erabilera komertzialerako eremutzat izendatzeko. Horren aurrean, sinadura biltzea egin dute arauok aldatzeko buruz herri galdeketa egin dadin, eta ia mila abadiñarren babesak lortu dute.

Bilketagaz jarraitzeko asmoa dutela adierazi arren, bi asteotan bildu zituzten 935 sinadurak eta herri galdeketa eskatzen duen mozioa aurkeztu dituzte, eguaztenean, Ander Cimas eta Goretti Galan Kaleartean Plataformako kideek udaletxean.

Hurrengo udalbatzarrean

935 sinadura horien babesagaz, udaletxean aurkeztu duten mozioa Abadiño Udalaren hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dela espero dutela azaldu dute Cimasek eta Galanek. Mozio horren bitartez, batetik, "Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko erabakia herri galdeketa eginez har dadila" eskatuko diete udaleko ordezkari politikoei. Mozioaren bigarren puntuan, berriz, kontsultaren diseinuaz Abadiño Udal Plangintzako Aholku Batzordea arduratu dadila eskatzen da.

Dokumentuak udaletxean aurkeztu ostean adierazi zuten, ia mila abadiñarren sinadura horiek erakusten dute "herri galdeketa egiteko eskaera hau ez dela, alkateak esan duen bezala, norbanako bati bururatu

zaion kontua, baizik eta herritar asko arduratzen dituen gaia", eta entzun egin behar luketela jendeak esateko duena.

Jose Luis Navarro alkateak herritarren parte-hartzearen inguruan agertzen duen koherentzia eza kritikatu zuten Kaleartean Plataformako kideek. Gogora ekarri dute, behin baino gehiagotan agertu duela bere burua "herritarrei ahotsa emango zien ohiko alderdi politikoei alternatibatzat".

Mozio bat aurkeztu dute, ia mila sinadura horien babesagaz, udalari herri kontsulta eskatzeko

Azpimarratu zuten, ezbaian dagoena ez dela herritarrek supermerkatu berriak zabaltzea gura duten ala ez, baizik, "ad hoc egindako birkalifikazio" proposamenaren inguruan abadiñarrek euren iritzia emateko eskubidea eduki behar duten ala ez. "Gauzak zelan egiten diren" da, Galanen berbetan, eztabaidagaia. Azaldu zuten, herri galdeketa aldea sinadura eman dutenetako zenbait supermerkatuak zabaltzearen alde bozkatzeko lukete galdeketa egingo balitz.

Mercadona eta Lidl supermerkatuen irekieraren iragarpenari elkarrekin erantzuteko sortu zuten hainbat eragilek Kaleartean Plataforma: Abadiño-



Kaleartean Plataformako bi kidek aurkeztu zituzten sinadurak eta mozioa, eguaztenean, udaletxean.



Birkalifikazioaz kontsulta egin dadila eskatuz EH Bilduk aurkeztu duen mozioak ez du aurrera egin.

ko hainbat merkataria; Dendak Bai, Euskal Dendak eta EKA Kontsumitzaileen elkarteak; eta ELA, LAB eta EHNE sindikatuak ere badaude plataforma horretan.

Bi astetan mila herritarren babesak lortuta, birkalifikazioari buruzko herri galdeketa burutu dadin, aurrera jarraituko dutela iragarri dute, asteon.

Hiru jarrera udalean

Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruz Abadiño Udaleko alderdi politikoei duen jarreraren argazkia ikusi da, bitartean, asteleheneko ezohiko bilkuran. Murueta auzoan bi supermerkatu berri zabaltzeko ahal izateko lursail horren izendapena aldatzeko tramiteei ekin aurretik, udalak herri galdeketa

egin dezan eskatu du EH Bilduk mozio batean. Proposamen horren kontra bozkatu du Abadiño Udaleko Independentiak alderdiak, eta abstenitu egin dira EA-Jko bi ordezkariak.

Esan bezala, baina, ia mila herritarren bultzadagaz, udalbatzarreko mahai gainean dago, berriro, Muruetako lursailaren etorkizunari buruzko eztabaida.

www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
Tel.: 943 208 444 / 943 176 257

IES UNIBHI

www.facebook.com/iesunibhi
@UniEibarErmua

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA

Ekainaren 6tik ekainaren 17ra

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIkoa
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRATZIOA

+ PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNAREN ZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT

Ate irekien jardunaldiak maiatzaren 28an 11:00etatik 13:00etara



Giro onean hasi dute Jan Alai pintxo lehiaketa Zornotzan

Domekan, 15:00ak arte dago lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera



Aurten lehiaketan parte hartzen duen pintxoetako bat.

ZORNOTZA J.Derteano

Eguaztenetik martxan da Jan Alai pintxo lehiaketa. Lehen egunean, arratsaldeak aurrera egin ahala, giroa berotzen joan zen, eta iluntzean jende dezente ibili zen tabernarik taberna aurtengo artelan txikiak dastatzen.

Lehiaketako lehenengo egun biek eguraldia lagun izan dute, eta gaur ere giro atsegina egingo du. Asteburua, ordea, ez dator hain lagunkoi, eta, badaezpada, euritakoagaz osatu beharreko moduko pintxo-tourra izango da. Guztira, sei gunetan banatutako 44 taberna edo jatetxek osatzen dute ibilbide osoa. Gune bakoitzetik hiru pintxo probatu behar dira, gutxienez (1.3 euro da pintxo bakoitza). Batzuk herrigunetik gertu daude, beste hainbat inguruetan, Boroa jate-txea, esaterako. Baina jendeari ez dio mugitzeak ardura saria tentagarria bada. Horixe gertatzen da, besteak beste, Boroagaz, 2014ko lehiaketa irabazi zuen jatetxeagaz. Iazko irabazleak Ur-

tza taberna eta Harrison Hotela dira. Lehenengoak epaimahai-koen saria irabazi zuen, eta bigarrena herritarren gustukoena izan zen.

Sari banaketa domekan

Gaur eta bihar, goiz eta arratsalde (12:00-15:30 eta 19:00-22:00) dago pintxoak dastatzeko au-

Pintxo onenen bozketan parte hartzen dutenen artean 500 euroko saria zozkatuko dute

kera; domekan, berriz, 15:00 arte. Sari banaketa ekitaldia domekan egingo dute, 20:00etan, Zelaia Zentroan. Epaimahai-zen herritarren pintxorik gustukoenean 1.000na euro jasoko dute. Pintxoak dastatuz eta bere faboritoak hautatuz parte hartzen duten guztien artean 500 euroko saria zozkatuko dute.

Ziztada Gune Askeak lehen urteurrena ospatuko du

Askotariko ekintzak prestatu dituzte zapaturako

ZORNOTZA J.D.

Astelehenean urtebete egin zuen Ziztada Gune Askeak. 2015eko maiatzaren 23an hainbat herritarrek Luis Urrengoe-txea kaleko lokal bat okupatu zuten, bertan eskaintza alternatiboa landu eta eskaintzeko. Zapatu honetan urteurrena ospatzeko egun osoko egitaraua osatu dute.

Goizean, 10:00etatik aurrera, tailer bi antolatu dituzte. Batean, autogestioa izango dute langaia; bestean, bideo-edizioaren munduan trebatzeko aukera eskainiko dute Aittu Durangaldeko proiektu komunikatiboko kideek. Tailerraz gainera, Aittu proiektuaren gaineko azalpenak ere emango dituzte goizean.

13:00etan Ziztada Gune Aske gune independente aldarrikatuko dute. Testu bat irakurri eta okupazioaren bandera eskegiko dute kanpoaldean. Ziztada Gunearen balioak (autogestioa, eskaintza alternatiboa...) aldarrikatzeko ekimen bat izango da.

Eguerdian, 14:30ean, bazkaritara batuko dira. Gura duten denek parte hartu dezakete. Maiatzaren 27a da izena emateko azken eguna, 652 714 477 telefonora deituta. Bazkari beganoa izango da.

Ospakizun eguna musikagaz agurtuko dute. 20:00etan, Steepers taldeak zuzeneko kontzertua eskainiko du lokalean. Besteak beste, hard rocka lantzen du Zornotzako talde honek.

Ekainaren 2an epaiketa Urigoitia omentzeagatik

Lopez de la Calle, Soloeta eta Uribe epaituko dituzte Lutxi Urigoitiaren omenaldiagatik

OTXANDIO J.Derteano

Otxandixo Libre mugimenduak informatu duenez, Aitor Uribe, Miren Soloeta eta Amaia Lopez de la Calle ekainaren 2an epaituko dituzte, Madrilen. Lutxi Urigoitiaren oroimenezko ekitaldian parte hartzeagatik da epaiketa.

Fiskalak bi urteko kartzela zigorra eta 9 urteko gaitasun-gabetzea eskatzen ditu bakoitzarentzat. Otxandixo Libre "itzezko injustiziatzat" jotzen du hiruren egoera: "Lutxi Urigoitia Eusko Jaurlaritzak poliziaren biolentziaren biktim gisa onartua du", gogoratu dute. Gainera, "atxiloketak egin eta gutxira, udalak berak Lutxi omendu zuen EH Bildu eta

EAJren babesagaz". Ildo horretatik, hiru otxandiarren egoera salatzen kontzentrazioa deitu dute zapatu honetan, 20:00etan, plazan.

Epaietarako gastuetan laguntzeko Libre zozketak martxan dirauela gogoratu dute. Hain zuzen, bonu eta kamiseta salmentekin zein plazan egingako parrilada batez ateratako diruagaz Egoitz Garmendiari lagundu zioten abokatu gastuetan zein Madrilerako bidaiari. Garmendiak joan zen astean izan zuen epaiketa. Aldeen arteko akordioagaz urte biko kartzelaldia ezarri zioten. Aurretik urte bi kartzelan egozta denez, ez du kartzelara itzuli beharko.

Udalekuetarako begirale bila dabilta Mañarian

MAÑARIA M.O.

Herriko guraso talde batek as-
tebeteko udalekua antolatu du, udalak eskaintzen duen zerbitzuaren osagarri lez. Ekainaren 27tik uztailaren 1era bitartean garatuko da, 6-13 adin tartekoei begira, eta batez ere irteerak egitea euren asmoa. Dagoeneko hasi dira prestaketa lanetan, eta azaldu dute begiraleak behar dituztela. Interesa dutenek berramesten@txatxilipurdi.com helbidera bidali behar dute curriculum, ekainaren 8a baino lehen.

Udalak antolatutako udalekuak ekainaren 27tik uztailaren 29ra burutuko dira, 3-10 adin tarteko umeei zuzenduta. Parte hartu gura dutenek ekainaren 10a baino lehen eman behar dute izena, udaletxean edo liburutegian.

momtx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT ARGIA Peru Magdalena (2016)
UME ETA GAZTEENTZAT JOLASTUKO AL GARA? Hervé Tullet (2016)
MUSIKA IFARRALDEKO KANTU ZAHARRAK Xalbador (2016)

LAISTER ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK ERAIKIKO DIRA



Montevideo Etorbidea · 48200 Durango **Koordenadak:** 43.169620, -2.631006

INFORMAZIO GEHIAGO

946 46 20 41
www.sukia.com



Estás en tu casa.
Zure etxean zaude.

BBVA-ren
finantzaketarekin

Bertakoa eta sasoikoa jateko asmoz, sukaldea zabalduko dute Txintxirrin

130 ikaslek bazkaltzen dute jantokian, eta kanpotik ekartzen dute jatekoa



Gurasoekin batzarra egin dute Txintxirrin, sukaldearen proiektua azaltzeko.

ELORRIO Markel Onaindia Irailean etapa berri bat hasiko du Txintxirri ikastolak. Izan

ere, sukaldea muntatuko dute ikastetxean, eta bertako eta sasoiko produktuak jatea izan-

go da euren helburua. Zuriñe Zorrozuazuzendariak esan du “gurasoen eskaera historiko

bat” dela, eta egia bihurtzeko “inbertsio handia” egingo dutela. 130 ikaslek bazkaltzen dute ikastolako jantokian, eta kanpotik ekartzen dute jatekoa.

Zorrozuak azaldu du lehenengo pausoa sukaldea muntatzea izango dela. Langile berri bat ere kontratatuko dute, zerbitzua aurrera eraman ahal izateko. Sukaldean bertako eta sasoiko produktuak prestatzea da euren nahia, baina sukaldea antolatu eta gero hasiko dira

Zuriñe Zorrozuazuzendariak esan du “gurasoen eskaera historiko bat” dela

ekoizleekin lanean. Durangoko Kurutzia ikastolan eredu bera daukate, eta han duten ekoizleen sareagaz ekingo diote elorriarrrek lehen pauso lez. “Sare bat sortu beharko da, egunero behar

beste janari edukitzeko”, azaldu du zuzendariak. Durangaldeko produktoreak hartuko dituzte kontuan lehenik, eta horien artean, Elorriokoak batez ere.

Ongizatea helburu

Ikasleen ongizatea lortzeko filosofiagaz lanean dihardute la kontatu du Zorrozuak, eta hortxe kokatu du sukaldearen proiektua: “Ikasleen ongizatea eremu guztietan lortzea da gure bidea”. Bestelako egitasmoen artean, haurreskola berria bioeraikuntza ereduagaz sortu zuten. Gainera, Eskola Jasangarriaren bandera lortu berri dute.

Gurasoen ardura

Gero eta guraso gehiago dira eskola jantokietako elikaduraz arduratzen direnak. Kurutzia eta Txintxirrikoen aparte, Durangaldeko hainbat eskola publikotan antzeko aldarrikapena zabaltzen dabil gurasoen plataforma bat, eta atxikimenduak batzen dabilta.

Nanukeko beharginak, Eroskiri konponbide eske

Kontzentrazioa egin dute ELAk eta LABek deituta

ELORRIO M. O.

ELA eta LAB sindikatuek ohartarazi dute Transportes Nanuk enpresa “likidazio prozesuan hasteko zorian” dagoela. Batez ere, Eroskiren garraioak egiten ditu Nanukek, eta horregatik, “arazoaren erdigunean” Eroski bera dagoela uste dute beharginak. Joan zen barikuan kontzentrazioa egin zuten, konponbidea eskatzeko.

Eroskik aholkularitza zerbitzu bat kontratatu zuela esan

dute, enpresa batzordeagaz (CCOOk 3, ELAk 1 eta LABek 1) negoziatzeko. Baina, bitartean, beste garraio enpresa bat hartu ei dute Nanuk ordezkatzeko. Sindikatuen arabera, aurrera begira, kanpoko enpresa batek ardura hartu eta Nanukeko beharginak bertan sartzea proposatu du aholkularitzak. Baina, ez daude ados: “Ez ditu etorkizunean lanpostu denak bermatzen, eta lan baldintzen prekarizazio bat ekarriko du”.

Herritar talde bat isunaren inguruko azalpen eske

Ia 2 milioi ordaindu beharko dituzte herritarrek

BERRIZ M. Z.

EH Bilduk asteon deitu duen herri asanbladan Berrizko herritarrek argi adierazi dute 1.823.526 euroko zigorra herritarrek eurek ordaintzea “bidegabekeria itzela” dela.

EH Bilduko Gorka Camara zinegotziak adierazi du, “ezer gertatu ez balitz bezala” jokatzen dabiltzala batzuk, eta erantzukizunak dituztenek “aurpegia ematea” eta gobernu taldeak

herriaren aurrean “azalpenak ematea” gura dutela berriztarrek.

Herri asanbladan 70 herritar inguru elkartu ziren, eta hemendik aurrera taldetxo bat sortu eta herritar gehiagorengana zabaltzeko asmoa adierazi zuten. Horrez gain, protestak egitea beharrezkoa izango dela diote herritarrek, eta EH Bilduk, bere aldetik, lan instituzionala egiten jarraitzea.

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Etorkizuneko Lan-Erronkeei Erantzuteko

ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 6tik 17ra

Matrikula
uztailaren 11tik 15era

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,
eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.



BETIXU JATETXEA

> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

> -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

> -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

> -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
> Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

> -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

> -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

> -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

> -%5 lehenengo erosketan.
> -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

> -% 10 eskola eta bulego materialean.
> -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

> - %10 asteburuetako menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

> -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

> -% 10 Dippner oinetakoetan.
> -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



OPEN KLUB

> -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

> Bosgarren gosaria doan.
> Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

> Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

> -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
> -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

> -%5 liburuetan.
> -% 10 papergintzan.

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
946 816 558

Anboto komunikabideak

@anboto

Izurtza eta Mañarirako autobus zerbitzua osatu du Bizkaibusek

Astelehen honetatik, joan-etorrietan dauden geltoki denetan autobusera igo zein jaitsi daiteke; esaterako, Tabiran eta Izurtzan, Mañarira joateko



Egunean Bizkaibusek sei autobus bideratzen ditu Izurtza eta Mañarira: hiru joateko eta beste hiri etortzeko.

IZURTZA J.Derteano

Astelehen honetatik, Durangora lotzen dituen garraio zerbitzu osoa dute izurtzarrek eta mañariarrek. Bizkaibusek herri bi horietarako zerbitzua hobetu du. Joan-etorri kopurua berdin mantenduko dute, horretan ez dago aldaketarik. Moldaketa honako hau da: orain arte ez moduan, ibilbideko geroaleku denetan igo zein jaitsi ahalko da autobusetik.

Orain arte, Bizkaibusek autobus zerbitzu arraro samarra zeukan Mañarira eta Izurtzara. Linea horietako eskumena zen arrazoa. Arabako Foru Aldundiarena da eskumena, eta orain arte ez zuen geroaleku horietarako baimenik ematen.

Astegunetan hiru autobus joaten dira Mañarira: Bilbotik 15:30ean, 18:30ean eta 19:30ean irteten direnak. Astelehenera arte, mañariarrek eta izurtzarrek Iurretan hartu behar zuten autobusa. Eta ibilbide osoko geroalekutan autobusetik jaitsi zitekeen, baina igo ez. Autobuseko atzeko atea bakarrik irekitzen zuten. Aurrerantzean, geltoki denetan igo zein jaitsi ahalko da. Horrela, esaterako, ez dago Iurretaraino joan beharrik autobusa hartzeko: Madalenan, Olleria kalean zein Tabiran har-

tu daiteke; baita Izurtzan ere Mañarira joan ahal izateko.

Mañaritik Durangorainoko zerbitzuan ere berdina gertatzen da. Hiru autobus daude: 06:40, 07:40 eta 14:40. Ibilbideko geroaleku denetan igo zein jaitsi daiteke autobusetik.

Beraz, aipatutako moldaketek hainbat onura ekarri dizkie-

Bizkaibusek egunean sei autobus ditu Mañarira: hiru Durangora joateko eta hiru bueltarako

te ibilbide horretako erabiltzaileei. Alde batetik, Mañaria eta Izurtza lotuago daude: noranzko bietan igo zein jaitsi daitezke erabiltzaileak herri bietara joateko. Era berean, Bizkaibusegaz Durangori lotuago daude.

Maiztasuna handitzea

Egunean hiru zerbitzu bakarrik direnez, maiztasuna handitzea eskatu du Durangoko EH Bilduk. Gainera, Larrasoloetan beste geroaleku bat sortzea eskatu du. Auzo batzarretan jasotako proposamen horiek osoko bilkura eramango ditu koalizioak.

100 bat lagun batuta, Lantziegoko jaian

Garaitik 40 lagun inguru animatu ziren txangora

GARAI M.O.

Garai eta Lantziegoko (Araba) hainbat herritarrek egunpasa egin zuten elkarrekin zapatuan, herri bien arteko hartueman hori sendotzeko asmoz. Garaitik 40 herritar inguru animatu ziren txango berezira, eta denetara, 100 bat lagun batu ziren ospakizunean.

Goizean goiz irten ziren garaitarrak, eta eguzkia sartu arte ez ziren etxera bueltatu. Bazka-

ria eta erromeria izan zituzten, besteak beste.

Garai eta Lantziegoko hartueman aspalditik dator, eta 2013tik senide dira ofizialki.

Egunpasa egin zuten elkarrekin zapatuan, herri bien arteko hartueman hori sendotzeko asmoz



Garaitarrak Lantziegon, talde argazkian.

Adolfo Jainaga trikitilaria omenduko dute azokan

Ekainaren 5ean antolatuko dute azoka, frontoian

MALLABIA J.G.

Mallabian Nekazaritza eta Artisautza azoka hainbat osagai uztartuz antolatuko dute ekainaren 5ean, 10:00etatik 14:30era. Ekitaldia Adolfo Jainaga 25 urtean trikitixa irakaslea omenduko baliatuko dute.

Azokari dagokionez, guztira 16 postu atonduko dituzte. Mallabiko baserritarrek ekoiztutako ortuari, gazta, ogi zein euskal pastezez betetako postuak izango dira tartean. Antolatzaileek azaldu dutenez, ortuarien posturik onenari saria emango diote. Era berean, Nahikari emakume elkarteak postua jarriko du.

Trapuz eta larruz osatutako produktuak, bitxiak, xaboiak eta ukenduak ere salgai izango dira. Hargin bat eta egurra lantzen duen beste artisau bat ere bilduko dira Mallabiko azokara. Abere erakusketan, herriko baserrietako astoak izango dira protagonista.

Arbolen erakusketa
Mallabiko arbolen ezaugarrien

inguruko erakusketa ere ikusgai egongo da panelen bidez. Giroa alaitzeko, 12:00etan, Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia eskainiko du.

Nekazaritza eta Artisautza Azokan 16 postu atonduko dituztela azaldu dute antolatzaileek

Mallabiko arbolen inguruko erakusketa ere ikusgai egongo da, panelen bidez

Azokak sortzen duen ikusmina baliatuz, herriko eskolan Mallabiko musikariei buruz batu duten informazioa ikusgai izango da. Jasotako informazioagaz liburua kaleratzea dute helburu.

Fraileri espetxe araudia ezartzea eskatu dute

DURANGALDEA A.B.

Gorka Fraile preso durangarrari Espetxe Erreglamendua —gaixo larriak dituzten presoek dagokien atalekoa— aplikatzea eskatuz mozioa onartu du Iurretako Udalak. Badajozeko (Extremadura, Espainia) kartzelan dago Fraile, eta minbiziari aurre egiteko ebakuntza egin zioten duela bederatzihilabete. Erakunde publikoek Fraileri osasunerako esku-bidea bermatu behar diotela dio mozioak: “Presoek, preso egoteagatik, ez dituzte-eta oinarrizko eskubideak galtzen”. EAJk eta EH Bilduk babestu dute idatzia. PSE-EE abstenitu egin da: “Legean jasota dago preso hauen egoera. Irten ez bada, epaileak hala erabaki duelako izango da”.

Izurtzako mozioa

Izurtzan aho batez onartutako mozioan bat egiten dute Fraile-ren egoeraren eta jasotako tratamenduaren inguruko irakurketan. Bide horretatik, eskumena duten erakundeei adierazpenaren berri ematea adostu dute.

Ospitaleko lursaila udalaren esku uztea onartu du Eusko Jaurlaritzak

Berdegune berri bat izango dute zaldibartarrek ospitaleko lursail horretan



Joan zen barikuan lehenengo kontzentrazioa burutu zuten Jaurlaritzari lurrak uztea eskatzeko.

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Ospitale inguruko hiru mila metro koadro baino gehiagoko lursaila Zaldibarko Udalaren esku uztea onartu du, martitzen honetan, Eusko Jaurlaritzak. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, horrela jakinarazi zion ondare sailaren ordezkariak, joan zen barikuan.

Eusko Jaurlaritzak lagapen hori eginda, Zaldibarko Udalak osoko bilkuran hartuko du lursail horren jabetza, 10 urte luzagarriarako. Lursail hori herritarren erabilerarako zabalteko, ospitalea inguratzen duen murraren zati bat botatzeko lanak uda honetan egitea da EH Bilduko udal gobernuaren as-

moa, Euskal Herria eta Olazar kaleen gurutzebidetik autobus geltokirainoko berdegune berria ahal bezain laster zabalik izan dezaten zaldibartarrek.

Ospitaleko lursail zati hori berdegune moduan atontzeko, 112.000 euroko inbertsioa egitea zen Zaldibarko Udalaren aurrekontuaren barruko inbertsiorik handiena 2015. urterako. Ospitale psikiatrikoko hormaren zati bat bota, eta lursailaren parte bat herritarren erabilerarako zabaldu ostean, harresi berri bat altxatzea aurreikusi zuen udalak, iaz. Baina, Jaurlaritzak lagapen eskariari erantzunik eman ez zionez, udalak ezin izan zuen egitasmoa gauzatu.

Arantza Baigorri alkateak gogora ekarri duenez, Eusko Jaurlaritzak aste honetan onartu duen eskari hori 2014ko abenduan aurkeztu zuen Zaldibarko Udalak, eta denbora horretan ez du erantzunik jaso.

Hain zuzen ere, Jaurlaritzak erantzuteko denbora gehiegi eman duela iritzita, mobilizazioak hasi zituzten joan zen astean, Zaldibarren. Kontzentrazioa burutu zuten barikuan, *Eusko Jaurlaritzak, itzuli lurra herriari* lemapean. Jaurlaritzaren onarpenaren berri izatean, “adi” jarraituko dutela eta “helburua lortzeko mobilizazioekin jarraitzeko prest” daudela adierazi dute herritar horiek.

Udal Gaztedi erakundera batu da Iurreta

IURRETA Aitziber Basauri
Bizkaian gazteriaren arloko politika orokorra koordinatuko duen Udal Gaztedi foru erakundeko kide izango da Iurretako Udala. Hala onartu du udalbatzak aho batez. Batetik, gazteentzako ekintzak sustatzeko irizpideak proposatuko ditu Udal Gaztedik, eta, bestetik, udalen iradokizun eta iritzia jaso kontrastatzeko.

Iñaki Totorikaguena alkatea aukeratu dute Eskualdeko Batzordeko kide izateko, Iurretako Udalaren ordezkari lez.

Jubilatuak egunpasa joango dira Donostiara

ATXONDO J.D.
Atxondoko Anbotoko Dama nagusien elkarteak Donostiara egunpasa antolatu du, ekainaren 18an. Alde Zaharrean bisita gidatua egingo dute, besteak beste. Ondoren, Casa Valles jatetxean bazkalduko dute. Izen-ematea ekainaren 9a baino lehenago egin beharra dago, 627 661 065 telefonora deituta. 25 euro izango da bazkideentzat, eta 30 euro bazkide ez direnentzat.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



Durango bagara!
Bizkaian bagara dio abestiak, beraz, Durango Bizkaia bion bion egonik, zer esanik ez Durango ere bagarala. Bagara euskaldun bai! Badira egun batzuk, urtero bezala, gure uria euskararen saltsan murgilduta dagoela. Gure ohi-turak, gure dantzak eta gure kultura protagonista izanik emon dagoigun ongi etorri berroena eukal asteari!

Nork esango lieke gure amama-aititei euskaraz bizitzeko askatasuna heltzeaz zegoela. Nork esango liguke aste batean antolatutako lehenengo ekintza haiek gaur egun hilabete bateko iraupena izango zutela. Umetako abestiak dioen bezala, txiki txikia izanik hasi zen handitzen euskera, eta noski, asko maite dogu guk. Gure bihotza euskaldun sentitzen dogunok harro gagoz herriko elkarte, talde eta eskolen elkarlanaren fruituagaz. Ez dute ez erronka makala, izan ere herritarrok egun batzuetan ikusten dogun lana urte osoan zehar egindako esfortzuaren argazkia baita. Urtero parte-hartzaile gehiago dogu eta urtero ekitaldi gehiago. Eskerrik asko denei!

Durango euskaraz, 365 egun urtean euskeraz, lan eta bizi euskeraz, hortara goaz! Bada garaia guda hori irabaz dezagun. Aste batetik hilabete batera handitu gara, herma dezagun hilabete batetik urte osora handitzea. Ekinaren ekinez lor dezagun urte osoko euskal astea... Gure esku dago!

Gogoratu euskera ez dela galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, baizik eta dakienak hitz egiten ez duelako. Dagigun dio aurtan Ibilaldiko leloak. Ekin dagoigun beraz lanari, bizi adi euskaraz!

DURANGALDEA ASTEON

60 urtetik gorakoentzat ekintzak, ekainean

DURANGO > 60 urtetik gorakoak jardue-
ra fisikoaren garrantziaz ohartarazteko, hainbat ekintza antolatu ditu Durangoko Udalak, ekainerako. Lau ibilaldi proposatuko dituzte (ekainaren 1, 8, 15 eta 22rako), eta erlaxazio, barreterapia eta musikoterapia saioak ere antolatu dituzte ekaineko lau egunetarako.

Emakumezkoen osasuna aldarrikatzeko

ZORNOTZA > Emakumeen osasunaren aldeko nazioarteko eguna ospatuko dute, bihar, Zornotzan. 11:00etan, Zubiondo plazatik abiatu eta Jauregibarriako landak zeharkatuko dituen martxa antolatu du Berdintasun sailak. Emakumeen sexu ugalketa eskubidea aldarrikatuko dute, nazioarteko egunagaz bat eginda.

Lur arropa-dendak eman du 22. iPada

DURANGO > Lur jantzi-dendan eman dute Salerosketak Be Euskeraz ekimenaren barruan maiatzean zozkatu duten iPada. Xabier Elorriaga 427.086 zenbakidun txartelaren jabeak jaso du 22. zozketan banatu duten saria. Erosketak euskaraz egitea bultzatu eta saritu gura du ITG taldeak ekimen honegaz.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Gutuna

Pasa den asteko astekari honek *Erralde hiltegia: eta orain zer?* izenburua nabarmentzen zuen bere lehenengo orrialdean. *Erralderen zuloa: 2.6 milioi eta erabili bako 87.000 metro lur*, hau zen bigarren orrialdeko izenburua. Gure lehen balorazioa oso sinplea zen, ez dugu ulertzen zertara datozen holako izenburu ‘sensazionalistak’, eta ondoren ematen den informazioa lantzeko erak ere ez du prozesu guztian bizitako errealitatea islatzen. Lehenengo balorazioaren inguruko hausnarketa ez dugu kokatzen gure teiltuan, bigarrenaren inguruan guk sindikatu lez bizitakoa azaldu beharrean gaude. Zulo bezala irudikatutako kantitatearen lehen bostehun mila euroak Durangoko Hiltegia zena konpondu eta makinaria berrian inbertitutako dirua da. Hurrengo milioi eta berrehun mila euroak hiltegi berri bat eta elikagai munduagaz zerikusia luketen beste egitura batzuk kokatzeko lurren erosketak eta eskrituraztea. Hurrengo bostehun mila euroak hiltegi berri baterako proiektua lantzen joan ziren, eta azken laurhun mila euroak Erralde hilte-

giaren likidazio prozesuan. Horrela azaltzen da, zenbaki nagusietan, zelan banatzen den bigarren orrialdean azaltzen den zenbaki deigarria. Lau multzoetatik azkenak ez luke inbertsio izaera edukiko, ze lehenengo multzoko diru partida inbertsio lez onartu zuten Erralde barruan zeuden herriek. Zer esanik ez beste biak. Inbertsio horien ondorioa lur sail jakin bat da, kalifikazio jakin batekin eta eraikitze muga zehaz bategaz, espekulazioa ekiditeko. Eta beste datu bat gehitzearren, lur horren balioa handiagoa da inbertitu dena baino, balorazio ofizialak dioenez. Beraz, batzuek zuloa ikusten duten lekuan baserritarrok aukerak ikusten ditugu, nahiz eta ez den oso modako epe luzerako inbertsioak baserri munduari zuzentzea. Bertorako inbertitzea zuloa omen da; Burger King, Mc’donalds, Lidl eta Mercadonak urrea ei dakarre besapean. Mundue aldrebes ete dabilen, baina, ka.

Unzalu Salterain Basagutxibeaskoa, EHNE-BIZKAIA sindikatuaren izenean.

> Berbaz

Cristina Luengo | Andaluziako zentroko presidentea | **Durango, 1985**

“Aurrera egiteko bazkide berriak behar ditugu; energia eta jende berria behar dugu”

Andaluziako zentroak zuzendaritza berriztu du martxoan; belaunaldi berriek hartu dute 1987an sortutako elkartearen ardura



> BERBAZ Aitziber Basauri
Bederatzigarren aldia izan duen Apirileko Azokak izandako erantzunagaz pozik dago Andaluziako Zentroko presidentea den Cristina Luengo. Une onak eta txarrak pasa dituen elkartearen ezagutarazteko oso garrantzitsua da ekintzak antolatzea, bere ustean.

Oraitxe egin duzue Apirileko Azoka. Nola joan da dena?

Oso ondo, egia esan. Primeran. Bildur apur bat ere bage-neukan. Apirileko Azoka ez da 2013tik egin, eta dena martxan ipini behar izan dugu berriz ere;

berrikuntzak ere sartuta. Elkartearen zuzendaritza ere berriztu dugu, eta ez genekien nolako erantzuna izango zuen. Baina, oso ona izan da erantzuna. Zapatua egun borobila izan zen, egun osoan egon zen azoka beteta. Domakako Rocío estiloko mezan, eta ondorengo poteo eta txibien orduan ere jendea batu zen. Bazkalorduan giroa moteldu arren, arratsaldean berriz berotu zen.

Urte batzuetan ez da antolatzeko modurik egon?

Eskatzen duen lana izan da arazo nagusia. Antolakuntza, ardurak hartzea... lan handia da, eta

aurreko zuzendaritza batzordeak ez zuen hori gain hartu. Gainera, elkarteak ez du diru askorik. Bazkideen kuotak dira diru-iturria, eta halako muntairako dirua behar da. Ate asko jo behar dira, laguntza asko eskatu, dirua lortzeko nahiz-eta gero berreskuratu, zati bat bada ere. Udalak ere laguntzen digu lekua utziz, eta ez da gutxi, bestela ezingo genuke egin. Horri beharrezko segurtasun neurriak eta agiriak gehitu behar zaizkio.

Ahalegin pertsonal eta ekonomikoa eskatzen du.

Hala da. Ahalegin pertsonala

“*Sasoiak aldatu dira, baina, elkartearen aurrera ateratzea denon helburua da*”

“*Momentu larriak egon dira, baina, egun, elkartearen finkatuta dagoela esango nuke*”

behar da, eta ekonomikoki gure baliabideetara egokitu.

Noiz sortu zen Andaluziako Zentroa? Zein helburugaz?

1987an sortu zen, Andaluziako kultura sustatu gura zuen andaluziar talde baten eskutik. Landakoen elkartzaren ziren hasierako urte haietan. Dantza taldeak ere bazeuden, eta ahal den neurrian mantendu dira.

Durangoan egonkortuta dago Andaluziako zentroa?

Momentu larriak egon dira, baina, gaur egun, finkatuta dagoela esango nuke; ezaguna da herrian. Orain 80 bazkide gara, baina, egon dira 200 bazkide inguru izan diren sasoiak. Dena den, elkarte guztiek bizi dituzte momentu txarrak eta momentu oso onak. Baliteke ekintza gehiago antolatuta ezagunagoa izatea. Elkartearen ezagutarazteko, edo desberdina den beste aukerarik badagoela ikusteko, ekintzak antolatzea oso garrantzitsua dela uste dut. Eta asko etortzen dira sevilla dantzen klaseak ematen diren galdezka. Modan dagoela ematen du, eta badago jendea ikasteko gogoz.

Belaunaldi berriek hartu duzue lekukoa. Sasoiak aldatu dira?

Sasoiak aldatu dira, bai, baina elkartearen aurrera ateratzea da guztion helburua; gauzak egitea. Bazkideen batez besteko adina altua da, eta berrikuntzak beharrezkoak dira. Aurrera egi-

teko bazkide berriak behar ditugu; energia berria eta jende berria behar ditugu. Nola animatzen da jendea? Gauza berriak eginez, ekintzak antolatuz. Bertaratzea, ikustea, parte hartzea... aurrerapauso bat da, gero bazkide egin daiteke edo ez.

Elkartearen ikusgai izatea, ekintzak antolatzea du helburu zuzendaritza berriztuak?

Hala da. Dena den, zuzendaritza martxoan berriztu da; lehenengo pausoak ematen hasi gara. Apirileko Azokagaz hasi gara, eta ekainaren 18-19an Rozioa ospatuko dugu. Datorren urtean datak aurreratu gura genituzke.

Durangoan integratuta zaudete belaunaldi berriak?

Bai. Hemen jaio eta bizi naiz. Euskaraz irakasten dut eta nahi dudana tokian nago. Aldi berean, Andaluziako kultura eta dantzak asko gustatzen zaizkit —egia esan, edozein dantza—, eta pena ematen dit zentroa ixtea, ekintzarik ez sortzea...

Gazteak erakartzea ere badaue erronka?

Bai. Baina, erronka zaila ere bada. Ikastaroak antolatzen ditugu, bazkideentzako prezio bereziekin, hala ere, jendea erakartzeko zerbait gehiago behar da: txangoak, bidaiak... Apurka apurka egin behar da hori; izan ere, finantzatu ahal izateko, diru-sarrerak gehitzeko gauzak egin beharko genituzke.

Euskaraz oso ondo moldatzen zara.

Bai? Etxean ez da inoiz euskaraz berba egin, baina gurasoek argi izan dute euskara ikasi behar nuela. Gaztelaniaz ikasi dut baina txikitatik euskaraz ikasteko eskola partikularrak jaso ditut.

Bertako kultura eta hizkuntza jaso dituzue.

Bai. Gure ekitaldietan beti barneratzen dugu euskal kultura. Hemen bizi gara. Beste erronka bat izango dugu, ekitaldiaren baitan aurrerakua-edo flamenkoagaz uztartzea. Andaluziako kulturastea ospatu gura dugu azaroan, ia ordurako zerbait berezia prestatzen dugun.

Euskal Herriko eskolarteko finalean arituko da Altube

Bizkaiko eskolarteko txapela eta Euskal Herriko finalerako txartela irabazi ditu Txaber Altubek

> BERTSOLARITZA Itsaso Esteban Unai Mendiburuk eta Txaber Altube abadiñarrak lortu zuten joan zen domekan Getxon jokatu zuten Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finaleko buruz-burukora ailegatzea, eta abadiñarrak jantzi zuen azkenean txapela. Finaleko buruz-burukora ailegatu diren bi bertsolari horiek, Altubek eta Mendiburuk, ekainaren 4an Ereñozun jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartuko dute.

Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren bertso idatzien finala ere egin zuten, domekan, Getxon, eta Aitor Garitaonandia, Haitz Gaztelurrutia, Ander Sarriugarte eta Markel Zubiaga Durangaldeko bertsolariek sariak jaso zituzten. *Oinak buruan* lelopean, egun osoko egitaraua gozatu zu-

ten bertsolari gazteek. Elkarre-gaz bazkaldu zuten, eta jolasean ibili ziren bazkalostean.

Udazkenekoa prest

Eskolarteko finala jokatu zen egun berean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udaberriko fasearen azken saioa ere jokatu zen, Getxon. Saio horretako emaitzekin batera, udazkenean hasiko den fase berrian parte hartuko duten bertsolarien zerrenda ere eman du jakitera Bizkaiko Bertsotale Elkarteak. Lista horretan daude Txaber Altube abadiñarra eta Durangaldeko beste sei bertsolari ere.

Udaberriko fasean lortutako puntuak esker lortu dute Udazkeneko faserako txartela Txaber Altube eta Aitor Bizkarra abadiñarrek, Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak eta Beñat Romero zornotzarrek. Durangaldeko



Getxon jokatu zuten, domekan, Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala.

beste hiru bertsolari ere arituko dira, gainera, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udazkeneko fasean: lehenago finalista izan

zirelako sailkatu dira Beñat Ugartetxea mallabiarra, Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretara, eta Miren Amuriza berriztarra.

Guztira, 30 bertsolarik parte hartuko dute bost kanporaketa eta hiru finalaurreko izango dituen Udazkeneko fasean.



Eskolarteko finala jokatu zuten egun berean burutu zuten Bizkaiko Bertsolari txapelketako udaberriko azken saioa ere.

Lau musika talde elkartuko ditu Durango Metal Fest jaialdiak, bihar, Plateruenean

Durangoko Hora 13 eta Alerta taldeek, Insomnio ermuarrek eta Atlantida bilbotarrek joko dute

> MUSIKA Itsaso Esteban Metal doinuak jotzen dituzten Durangaldeko bi musika talderen, eta Bizkaiko beste bi talde-

ren zuzenekoak hartuko ditu Durangoko Plateruenean, bihar. Alerta, Hora 13, Insomnio eta Atlantida taldeenak.

Aurretik Damu Dot, Raxfer, The Kraven edo Biok taldeetan ibilitako lau musikaririk sortu zuten Hora 13 talde durangarra.

Ángel Etxebarria, Unai García, Xabi Fernández eta Erlantz Eizmendi musikariek osatzen dute talde hori, eta iaz kaleratu zuten *Anocheció* izenburuko lehenengo diskoko kantak aurkeztuko dituzte Durangoko Kafe Antzokiko biharko jaialdian.

Metal musikaren soinu desberdinak entzungo dira Platerueneko zapatuko hitzorduan

Alerta taldeko durangarrek, bestalde, iazko martxoan argitaratu zuten *Seguimos creyendo* diskoko kantak joko dituzte Durangoko biharko jaialdi metale-roan. Iazko udaberrian ere, disko horretako kantak aurkezteko kontzertua eskaini zuten taldekideek, Plateruenean. Orduetik,

taldekideek azaldu dutenez, aurreko urteetako intentsitate mailarik barik, martxa lasaigoan ibili dira azken hileotan. Besteak beste, bertsioen pot-pourri bat prestatzen lokaletik atera barik denbora asko egon eta gero, Platerueneko biharko kontzertuan *Seguimos creyendo* diskoko kantak joz ondo pasatzea dute helburu.

Metal musikaren barruko soinu desberdinekin izango dute oihartzuna Durangoko Platerueneko biharko hitzorduan. Durangoko Alerta eta Hora 13 taldeekin, urte askoko esperientzia duten Insomnio taldeko ermuarrek eta Atlantida hiru-kote bilbotarrak ere joko dute. Euren disko berriak aurkezttera etorriko dira talde bi horiek ere Plateruenera.

'Anocheció' izenburuko lehenengo diskoko kantak aurkeztuko ditu Hora 13 Durangoko taldeak



'Seguimos creyendo' azken laneko kantak joko ditu Alerta taldeak. Gaizka Peñañiel

Jose Julian Bakedano | Zinegilea | Durango, 1948

“Fikzioa, aktoreak zuzentzea da gehien gustatzen zaidana”

Bakedanoren filmeen inguruko zikloa burutu dute Bilboko Azkuna zentroan

> ZINEMA Itsaso Esteban

Zure lanaren inguruko zikloan parte hartzeak zelako sentipenak eragin dizkizu?

Oso sentsazio onak eduki ditut. Unibertsitateko bost lagunen eskutik omenaldi oso polita jaso nuen: nire obrari eta aktibista kultural moduan egin dudana nari buruz berba egin zuten, eta ondoren, niri buruz Victor Iriartek egin zuen film laburra eman zuten. 130 lagun elkartu ginen. Globo batean bezala egon naiz: atsegina da bizi guztian zehar egin duzun lanagatik esker ona agertzen dizutela ikustea.

Asko dira 130 lagun.

Bai, horrela da, baina egia da, baita ere, publiko guztia 40 edo 50 urtetik gorakoa zela. Ez zait gustatzen hori, baina errealitate bat da gazteak gero eta gutxiago joaten direla zinemara. *Oraingoz izen gabe* eta *La carta del amigo*, adibidez, gazteentzat eginda daude, ez nagusientzat.

Zikloko filmeen hautaketan parte hartu duzu zeuk ere?

Bai, aholkua eskatu didate, eta eman egin diet. Edozelan ere, ez dut lan bat ere kanpoan utzi. Izan ere, nire lanetako batzuen masterrak desagertuta daude. Beraz, nire obratik ikusi daitekeen dena dago zikloan.

Zeintzuk aukeratu dituzue?

Hautaturiko batzuk artearen inguruko filmak dira: *Ikuska 9*, *Chillida: retrato en casa*, eta *Nagel*. Beste batzuk fikziozko lanak dira: nire hasieretako zinema esperimentalaren erakusle diren *Bi* eta *Bost*, *Oraingoz izen gabe*, eta *La carta del amigo*. Dokumentalak ere emango dituzte: *Basterretxea*, *una declaración* eta Agirre Lehendakariarena.

Bere sasoian film hauek ikusteko nahikoa aukera egon zen?

Bai, *Oraingoz izen gabe*, esaterako, Durangoko Kurutzia zinemaren estreinatu genuen, 1986an,

eta Euskadiko hainbat herritan ere eman zuten gero. Arrakasta handia eduki zuen. Baina 47 minutu irauten du filmak, eta zirkuitu komertzialetik kanpo geratu zen horregatik.

Zer duzu gustukoago, fikzioa ala dokumentalak lantzea?

Fikzioa, aktoreak zuzentzea da gehien gustatzen zaidana. Oso gauza polita iruditzen zait. Baina, fikzioa garestiagoa da.

Eta dokumentalen sorkuntzak zer eman dizu?

Ezagutza handia, batez ere. Izan ere, arteari buruz egin ditudan dokumentaletan, artea publikoarentzat ulergarri egiteko esfortzu handia egin dut.

Zure ibilbidean zehar zailtasun asko izan duzu proiektuak aurrrera ateratzeko?

Zailtasun finantzieroak izan ditut, bai. Baina Eusko Jaurlaritzaren edo Espainiako Kultura

Ministerioaren diru-laguntzak ere jaso izan ditut hainbat proiektu gauzatzeko. Hala ere, hain zuzen, finantzabide falta dela eta gauzatu ezin izan ditudan lau proiektu luze dauzkatzat: *Aquella maldita espada en el crisol*, *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín*, *Noche en Reno* eta Atxagaren ipuin batean oinarrituriko *Ana y Martín gemelos*. Aukera badago, gura nuke proiektu horiek gauzatzea.

Duela bi urte jubilatuta zinen, baina, itxura batean, ez duzu laneko erritmoa gutxitu.

Arte Ederren Museoan jubilatuta nintzen, bai. Baina martxan jarraitzen dut orain ere: lau erakusketa antolatu ditut azken urtean Durangoko Museoan, beste bat Rekalde aretoan, bi dokumental egiteko proiektua ere badut eskuartean... Egunean zazpi orduz egiten dut lan, etxean, musika klasikoa entzunez.

Zer panorama ikusten duzu zinemaren arloan? Joaten al zara zinemara?

Zinemagile gazteentzat oraindik ere nahiko zaila da egoera, alde ekonomikotik: film mota batzuk egiteko baliabide asko behar da, eta ez da erraza bihurtzeko ekonomikoak lortzea. Joaten naiz zinemara, bai: azken aldian, adibidez, *Espías en el cielo* eta *Trumbo* ikusi ditut. Euskal Herrian egindakoetatik, *A Escondidas* eta *Ander eta biok* asko gustatu zaizkit.

Zein da zinemaren egoera hobetzeko ikusten duzun bidea?

Gauza asko egin behar lirateke, baina, labor esateko, Frantziako eredua hartzea ondo legokeela uste dut: zinemagintzan inbertitzen duten sozietate pribatuak dauzkate han. Filma arrakastatsua bada, euren irabaziak dituzte inbertsore horiek, eta galerak egonez gero, aldiz, Estatua egiten da galdutakoaren kargu. Horrez gainera, diru-laguntza gehiago eta murrizketa gutxiago behar dugu.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Euskaltzalea



Egiazko herria

Domeka arratsaldean etortzen da bikotea, bisitari, geure Durangaldeko herri txikitik handira; jende desberdina ikusi, haren keinuak, bestearen agur lotsatia, erakusleho apainak, terrazan eseri eta, kafeaz batera, pasteltxoa jan...; horixe dute gogoko, besterik ez, ibilbide eta dekoratu berdintsuak izatea beti.

Hiri batzuek jasaten ari diren turismo oldeari buruzko artikulu interesgarria irakurri dut duela gutxi. Egileak, antropologiako doktoreak, tematiko bihurturiko eremu urbanoa aipatzen du. Turistentzat soilik omen den gezurretako herri/hiriei buruz ari da. Iruzurgiletzat hartzen ditu agentziak eta operadoreak, benetakoa faltsutu eta itxuraz aldatuta saltzen diete, askotan, bezeroei. Klonaturiko kasko historikoak nonahi, dekoratu historikoa, parodia eta karrikatura berbak erabiltzen ditu.

Arriskuak arrisku, jende oldea hartuko du Durangok domekan. Tartean, bisitariz jantzitzako bat baino gehiago ere bai; beharbada, plano eskuetan, turista sindromeak jota operadoreak saldutakoaren bila dabilzala. Dena ondo seinaleztatuta, kartelak, noranzkoak eta abarrekoak, galdu ez gaitezen, ezagutu **dagigun**, ohartu gaitezen gaurkoa ez dela gezurretakoa, ez dela parke tematikoa edota herri museifikatua, euskaldun izan/egin gura duen herri bizia baizik. Gunetik gunera, barrutik barrurako urratsa eginez, gozatu **dagigun**, bada, elkar ezagutuz, eraikiz, jo lastuz, sortuz, heziz, dastatuz, transmitituz... Domeka egun desberdina izango da egiazko herri batean.

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MAIATZAK 28
13:00etan
KANTULAGUN KALEZ KALE
KANTZALDIA

MAIATZAK 28
21:30etan
DURANGO METAL FEST
KONTZERTUAK

IBILALDIA 2016
DURANGO
dagigun!
20:30
dj.bull
MAIATZAK 29
22:00etan
IBILALDIA DAGIGUN!
JAIALDIA

IBILALDIA 2016

Maiatzak 29 DURANGO



www.ibilaldia.eus

dagigun!



ibaizabal
IBASTOLA

KULTZAGA
KASTOLA

ikastolen
elkartea

1 eraiki**2 jolastu****3 sortu****4 hezi****5 dastatu**

Sarrera bidea

Aparkalekuak


Ibilbidea

Ibilbideko loturak

Euskotren

Bizkaibus

Arropa denda



ibaizabal

KURUTZAKA KASTOLA

ibaizabal


IBILALDIA 2016

www.ibilaldia.eus**IBILBIDEA**

IBILALDIA 2016

EGITARAUA

www.ibilaldia.eus



Ibilbidea girotzen: Lesakako **Elutxa** Txaranga, Durangoko **Kriskitin** Dantza Taldea, Durangoko **Txoritxu Alai** Dantza Taldea, Durangoko **Tronperri** Dantza Taldea, Berangoko **Simon Otxandategi** Dantza Taldeko **Joaldunak**, Kurutziaga Ikastolako **Hankapaloak**, Durangoko **Batukandra** Batukada, Durangoko **Trikitixa eta Pandero** Eskola, **Txiri-txiri, Jaizale** Durangaldeko Txistulariak.

20:30ean
DJ BULL
Plateruena Kafe Antzokian



PUZGARRIAK: 10:00 etatik 18:00 etara.

ONDO PASA DAGIGUN! PASATU GABE!



ERRONKA PROBAK



OSASUN ZERBITZUA



TXOSNA



KOMUNAK



ELBARRITU-ENTZAKO KOMUNAK



TALOAK



IZOZKIAK



KAFA



TIKETAK



OTARTEKOAK



PUZGARRIAK



SERRATU S.L.

Galdaragintza eta itxierak
Empresetan mantenimentua

Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com · www.serratu.com





Duela bi aste mendi lasterketa antolatatu zuen Ibilaldiak.

Ehunka boluntariok hartuko dute parte Ibilaldiko prestaketetan

Ibilaldiko lantaldeek buru-belarri dihardute domekako jaialdia gertatzeko

> SARRERA Jone Guenetxea
Kurutzia eta Ibaizabal ikastoleko arduradun, guraso, irakasle eta ikasleak azken orduak aprobetxatzen ari dira domekan Ibilaldia ospatzeko. Antolakuntza aldetik, bostehun boluntariok baino gehiagok dihardute lanean. Ibilaldian parte hartuko duten milaka lagunek Durango bisitatu aurretik egin beharreko lana izugarria da. Seinaleztapena, guneen antolaketa, arroparen prestaketa, txosnak,

zuzendariak azaldu duenez, “jai eredu ezberdinak eskaintzen dituen egitaraua eraiki dugu hiru zutabe funtsezkoen gainean: herritarra, parekidea eta parte-hartzailea”.

Hasiera ekitaldia

Ibilaldiari Ibaizabal ikastolan emango diote hasiera ofiziala, 09:30ean. Ikastoleko eta instituzioetako ordezkariak ekitaldian hitza hartu ostean, Rosa Elizburuk eta Rosi Oleagak Ibilaldiko zinta moztuko dute. Horrela, ikastolek Oleaga eta Elizburu omendu gura izan dituzte. “Bi emakume hauek ikastolako guraso eta langile izan dira, eta eredu izan dira euren lanarekiko jarreraren. Ikastola beraia den proiektu egin dute, eta beti jarrera positiboa eta ekintzailea erakutsi dute, une gozo zein gazietan”.

Ondoren, 11:15ean, bigarren ekitaldia egingo dute San Agustín kulturgunean. Ordu eta erdi iraungo duen ekitaldi honetan, Durangoko ikastolek lekukoa emango diote 2017ko Ibilaldia antolatuko duten Mungiako Larramendi ikastolako ardura-dunei.

Ingurumena zaintzeko konpromisoa eta ardura hartu ditu

antolatzaileek. Ildo horretatik, garraio publikoa eta autobus pribatuak erabiltzeko deia egin dute. Bai Bizkaibusek eta baita Euskotrenek ere zerbitzu bereziak ipiniko dituzte egun horretarako. Ordutegiak www.ibilaldia.eus webgunean daude ikusgai.

Ibilbide urbanoa

Aurtengo ibilbidea hiri-gunean izango da soilik. Ibilbideak bost gunek izango ditu: Zuhatzola, Landako gunea, Matadero, Kurutzia eta Tabira. Guztira, 6 kilometro izango ditu. Ibilbide honen berezitasuna norabide jakinik ez duela da. Norberak aukeratu du norabidea. Sei kilometroko ibilbide luze bat proposatu dute. Era berean, herri barrutik beste ibilbide laburrago batzuk egin daitezke.

Herri bazkaria

Ibilaldi egunean, Kurutzia Ikastolan, Dastatu gunean, bertako produktuekin osatutako herri bazkaria antolatuko dute. Hiru menu egongo dira aukeratu ahal izateko: arrunta, begetarianoa eta beganoa. Bazkariko txartelak Ibilaldi egunean bertan, 12:00 ingurura arte salgai egongo dira.



Ehunka lagun batu ziren abenduan Ibilaldiko mosaikoan.

Elizburuk eta Oleagak moztuko dute Ibilaldiaren hasierako zinta

eszenatokiak... Baina Ibilaldia ez da egun bateko jaialdia bakarrik. Urte osoan zehar garatuz joan den proiektua izan dela azaldu dute antolatzaileek. Ibilaldiko ordezkariak diotenez, “egitaraua elkarlanean osatu dugu Durangoko kultur, gizarte eta kirol eragileekin.

Horrez gain, Euskal Herri osotik etorritako artistek ere lekua izango dute bertan”. Idurre Maortua Ibaizabal ikastolako



Rosa Elizburuk eta Rosi Oleagak Kolonbiako Nasa herriarekin harreman estua dute.

COLOR *plus*

3D

Digitalizazioa, materiala, inpresio lanak eta salmenta

Era guztietako inprimagailuentzako kartutxo original eta bateragarriak

San Ignazio auzunea, 1 behea - Durango
Tel.: 946 216 540 - durango@tiendascolorplus.com
www.tiendascolorplus.com

Udan ere euskahaldundu zaitez!

www.aek.eus

LATEX ERROTULUAK

ROTU-NET

www.rotunet.net

Durangoko elkarteak ere protagonista izango dira domekako Ibilaldian

Geu Bek zirkuitu egokitu bi ipiniko ditu Landakon, eta DRTk eta Tabirakok kirol jolasak eskainiko dituzte Zuhatzola parkean

> ELKARTEAK Markel Onaindia

Durangoko elkarteak ere protagonista izango dira domekako Ibilaldian. Izan ere, hainbat talde kultural eta sozialek bat egin dute jaialdiagaz, eta euren alea ipiniko dute egitarauan. Ibilaldiko antolatzaileek parte hartzeko gonbidapena egin zieten, eta askok eman dute baiezkua.

Geu Be elkarteak da parte hartuko duenetako bat. Antolatzaileen proposamena “oso ideia ona” iruditu zaio Jose Alfarori: “Horrela egin behar dira gauzak, guztion artean”. Landako Gunea eta Plateruenaren arteko eremuan edukiko du lekua Geu Bek. Bertan, zirkuitu egokitu bi ipiniko dituzte. Alfaroren arabera, begiak tapatuta egin beharko da bat, eta bestea gurgildun aulkien gainean. Zirkuituez aparte, Ibilaldiaren ibilbiderako irisgarritasun aholkuak ematen lagundu du elkarteak: aulkia nondik joan ahal den, arazo posibleak zelan konpondu...

Kirol jolasak

Zuhatzolako parkean, *Jolas-tu dagigun* gunean, DRTk eta Tabirakok parte hartuko dute. 11:00etatik 14:00etara bitartean, errugbiagaz eta saskibaloigaz lotura duten jolasak egingo dituzte. DRTko Aratz Gallastegik azaldu du landan jaurtiketak edo plakaketak egiten ikasteko aukera egongo dela, eta horretarako, zutoinak eta koltxonetak ipiniko dituztela. Errugbiko arauak erakutsi eta partidu laburrak ere prestatuko dituzte.

Familian jolasteko

Berbarok Ibilaldiko lau gunetan edukiko du presentzia tailerrekin: Tabiran, Landakon, Aramotzen eta Kurutziaiga ikastolan. “Familia osoarentzat pentsatutako tailerrak dira, ume zein helduentzat”, esan du Itsaso

Irisgarritasun aholkuak ematen ere lagundu du Geu Be elkarteak

Berbarok Ibilaldiko lau gunetan edukiko du presentzia tailerrekin

Gangoitiak. Txapak edota kamisetak lantzeko aukera eskainiko dute lau gunetan, eta aparte, Tabiran eta Landakon tailer bereziak ere bai, guneen izenagaz lotuta. Tabiran, *Eraiki dagigun* gunean, kartoizko kaxak margotu eta mosaiko erraldoi bat burutuko dute; Landakon, *Sortu dagigun* gunean, zirkua ekarriko dute malabare eta moztorroekin, besteak beste.

Tailerretako dinamizatzaileak Berbaroko eta Ibaizabal ikastolako hezitzaileak izango dira.

Bertsoak, Aramotzen

Aramotz auzoan (*Matadero*) bertso saioa iragarri dute, Durangaldeko Bertso Eskolaren eskutik. 12:30 bueltan Igor Elortza, Onintza Enbeita, Txaber Altube, Igor Galartza, Iker Apraiz eta Pello Azkarate hasiko dira kantatzen. Beraz, bertsolari esperientziadunak eta gazteak elkartuko dira mikrofono parean. Nahia Arrese ibiliko da gaiak ematen.

Txosnak, Pinondon

Bestalde, herriko sei elkarteak Txosnagunea ipiniko dute Pinondoko parkean, Alde Zaharrean sortuko den jai giroa zabaltzeko.




Errugbiko arauak ikasteko aukera emango dute Zuhatzolan DRTkoek.



Berbaroko tailerrak lau gunetan zehar burutuko dira.



Geu Beko kideek zirkuitu bi ipiniko dituzte; bat begiak tapatuta egitekoa, eta bestea gurgildun aulkian ibiltzekoa.

ekin 

ekin S. Coop.
Arriagane industrialdea (Boroa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia)
www.ekin.es

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

9861. DURANGO RUGBY TALDEA

JOLASTU DAGIGUN ERRUGBIAN ERE

Etor zaitez
DRT Gunera 11:00etatik
14:00etara Zuhatzolan

Idurre Maortua eta Urko Rodriguez | Ibaizabal eta Kurutziaga ikastoletako zuzendariak



“Ibilaldian herriko eragileekin sortutako harremanari datozen urteetan segida ematea gustatuko litzaiguke”

Ibilaldiak izan duen izaera parte-hartzailea azpimarratu dute Maortuak eta Rodriguezek

► ELKARRIZKETA J.D.

Ibilaldian buru-belarri murgildu dira Idurre Maortua eta Urko Rodriguez Ibaizabal eta Kurutziaga ikastoletako zuzendariak. Txandak osatzen, ekitaldiak antolatzen zein komunikazio lanetan atsedetik barik dihardute azken egunetan.

Etorkizunera begira, Ikastolek zein erronka dituzte orokorrean?

Idurre Maortua: Nagusiki konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza da dugun erronka nagusia. Ikasleak etapa erabakigarrian daude, etorkizuneko euren lana izango dena erabaki beharko dutelako, eta presio handiagaz bizi dute etapa akademiko hau. Zailtasun gehigarri bat ere badugu Batxilergoan, izan ere, dekretu zirriborroa baino ez dugu eskuartean,

eta horrek ziurgabetasun handia eragiten du. Adibide argi bat ematearren, oraindik ez dakigu zelakoa izango den datorren ikasturteko selektibitatea.

Eta Kurutziagak eta Ibaizabalek, zein erronka dituzte?

Urko Rodriguez: Kurutziaga ikastolan hainbat erronka ditugu ikastola modura, beheko mailetan hasita, Haur Hezkuntzako curriculum, eta honi erantzun dion eraikina eraberritu eta egokitzea beharrezkoa da; kanpo espazioaren erabilera hezkidetzak ikuspuntutik jorratu eta hau martxan jartzea; konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza martxan jarri dugu, eta hau osotzea DBHko mailetan, eta honekin batera Lehen Hezkuntzan inplementazioa hastea. Elkarbizitza eta Kiba bezalako proiektuak indarrean ipintzea... Esaldi batean sartzen

direnak, baina urte askoko lana ekarriko duten erronkak izango dira.

I.M.: Arlo pedagogikoan berriz, Ibaizabal hazten ari den ikastola da, gero eta ikasle gehiago ditugu, eta datozen urteetan hazkunde hori mantenduko dela uste dugu. Hazkunde horrek azpiegitura aldetik inbertsio berriak egitea eskatuko digulakoan gaude. Bestetik, lanbide heziketan gure eskaintza zabaldu gura genuke. Oraindik ere lanbide heziketako eskaintza nahiko erdalduna da, eta lan mundua euskalduntzeko ezinbestekoa deritzogu zikloak euskaraz eskaintzea. Bestalde, gizarte arloan dugun erronkarik handiena talde ikuspegia lantzea dela esango nuke.

U.R.: Badaude zehatzagoak diren erronkak. Ikastolako egunerokoa zein Ibilaldian zaindu gura ditugun zehar-lerro batzuk

finkatuta ditugu: aniztasuna, jasagarritasuna, parekidetasuna... Ez dira gai errazak, gizaritean oso errotuta daudelako bestelako praktika batzuk, eta gure artean ere ikuspegi ezberdinak daudelako. Hala ere, lanerako ildo zentralak izan behar direla uste dugu, datozen urteetan arretaz landu beharko ditugunak.

Ibilaldirako gutxi falta den honetan, zelan doaz prestaketa lanak?

I.M.: Ondo doaz. Jendeak ondo erantzun du, ez bakarrik ibilaldi egunean, urte guztian ere bai. Auzolanean egiten den lana da Ibilaldikoa, eta ikastolako kideek aurrean ere erakutsi dute badakitela horrelako deialdiei erantzuten. Askok izan dira lanean buru-belarri ibilitakoak, baina ez dizut gezurrik esango, badugu zer hobetu.

Zelan baloratzen duzue urte honetan zehar egindako lana?

I.M.: Aberasgarria izan da, herriko hainbat eragileguz antolatutako ditugulako ekintza ezberdinak. Mosaiko erraldoi batez hasi genuen lehen egitasmoa, eta gerora antolatutako ditugunetan ere jende askok hartu du parte. Ibilaldian egindako harremanei segida ematea gustatuko litzaiguke, datozen urteetan ere proiektu partekatuak eginez herri eragileekin.

Ibilaldian batutako dirua zein proiektutara bideratuko duzue?

I.M.: Ibaizabalen 2013an egindako eraikina finantzatzeko erabiliko da Ibilaldiko dirua. Eraikin honi esker, laugarren lerroa zabaldu dugu batxilergoan. 1.000 m2 dituen eraikina da.

U.R.: Kurutziagak goia jo du, baina inbertsioetarako beharra ere badago, batez ere Haur Hezkuntzan. Eraikina zaharkituta gelditu da, eta eraberritzea egiterakoan, idatzita dugun Curriculum berriari egokituko zaion eraldaketa ere egin gura dugu. Beraz, Ibilaldian batutakoa proiektu horretara bideratuko dugu.

EL BADULAKE
osagarriak

Barrenkalea, 7
DURANGO

ATXARTE
Mendiko denda

Santa Ana plaza
DURANGO
Tel.: 946 550 455
www.atxartemendikodenda.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

PLATERUENA

dagigun!

Landako
etorbidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus

BOKATAK
EGUN OSOAN

DJ BULL
20:30ean

Peto moreen bidez, Ibilaldiko gunea eremu ez sexista izatea aldarrikatuko dute domekan

Eragile moreek eraso sexistak prebenitzeko funtzioa izango dute Ibilaldiko gune guztietan, egun osoan zehar

> SEGURTASUNA P. Bustindui
Eragile moreek Ibilaldiko bost guneetan lan egingo dute egun osoan zehar eraso sexistak prebenitzeko. Egoera hauetan eman daitezkeen erasoak eki-

ditea izango dute helburu. Gainera, gune guztietako eragileak koordinatuta eta komunika-tuta egongo dira. Zaintza funtzioa izango dute, gunea behatu beharko dute, gertatu litezkeen

erasoak prebenitzeko. Beste funtzioa aldarrikapenarena izango litzateke. 300 peto more eta 150 pegatina banatu dituzte eraso sexisten kontrako aldarrikapena Ibilaldiko paisaian

txertatzeko. Ekimena ikastolen hezkuntza proiektuagaz lotuta dagoela nabarmendu dute antolatzaileek.

Ibilaldiko batzar jendetsuenetakoa izan da eragile moreen inguruan egindakoa. “Gaiak ikastoletan jakin-mina sortu duen seinalea da hori”, azaldu

zen astean Kurutziagan emandako formazio saioan 120 lagunetik gora parte hartu zuten.

Ido horretatik, Ibilaldian indarkeria sexistari erantzuteko protokoloa osatu dute. Irizpide horiek eragile moreei zein bestelako parte-hartzaileei azaltzea izan zen batzarraren helburuetako bat. Ibilaldian erasoaren kontrako telefonoa ere izango da: 605 707 059. Erasoren bat ikusi duenak edo erasoak jasan duen berak deitu dezake.

Ikasleen komikia

Ibaizabal ikastolako ikasleek komiki berezia osatu dute peto moreen inguruan. Horrekin, kartelak eta esku-orriak banatu dituzte Ibilaldia osatzen duten guneetan. “Ilusio handia egin digu. Eragile moreen ideia hedatzeko parte-hartzea posible dela ikusi dugu. Beraiek sortutako komikiagaz oso pozik gaude”, azaldu dute ekimenaren sustatzaileek.

Ibilaldirako 300 peto more eta 150 pegatina banatu dituzte

Ibaizabaleko ikasleek peto moreen komikia sortu dute

dute parekidetasuna zehar-lerro moduan lantzen jardun duten taldeko kideek. Izan ere, joan



Joan zen astean eragile moreen inguruko formazio saioa egin zuten.

IBILALDIA 2016

Durango



Zerbitzu bereziak egunean zehar
Bilbotik
Eibartik
Bermeotik (tren aldaketarik gabe)

902 54 32 10

www.euskotren.eus

@euskotrenEJGV

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

euskotren



Kontsumo arduratsua, jai giroa gustura eta zentzuz gozatzeko

Alkoholaren ondorioez informatu eta kontsumo arduratsua sustatzeko kanpaina burutuko dute

> IBILALDIA Joseba Derteano
Jai giroa eta alkohola. Gazteek bata besteagaz lotzen dute sarritan. Festarako osagaia bat izaten da. Ibilaldian ere, dibertsioari lotuta, alkohola kontsumituko dute gazte askok. Hori horrela izanda, alkohol kontsumo hori ahalik eta arduratsuen izan dadin saiatuko dira hainbat elkarte eta eragile Ibilaldian. Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoak, Ibilaldiko arduradunek, Ai Laket elkarteak, Sasoia enpresak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak elkarlanean koordinatu duten kanpaina da. 'Gustura eta zentzuz ospatu Dagigun!' da erabiliko duten leloa.

Horretarako, kalera irten eta gazteekin aurrez aurre egongo dira. Gazteak gehien ibiliko diren guneeetan zentratuko dira batez ere. Esaterako, 3. gunean, *Sortu Dagigun* izenekoan, Ai

Laket elkarteko kideak ibiliko dira. Ai Laket elkarteak, 2002an elkarte moduan sortu zenetik, kontsumo arduratsua- ren ideian eragitea du helburu. Alkoholaren erabilerak sortu ditzakeen arriskuak gutxitzeko lan egiten dute, horretarako prebentziorako komunikazioa erabiliz.

Domeka honetan, elkarte-ko kide eta boluntarioen artean taldetxoetan banatu, eta gazteengana hurreratu-ko dira informazio-diptikoak eta pegatinak banatzera zein eurekin berba egitera. Esaterako, gazteak alkoholaren erabileraren arriskuez kontzientziatzen eta erabileraren inguruko arrazoi eta helburuen gaineko hausnarketa bultzatzen saiatuko dira; edo alkoholaren inguruko informazio objektiboa emango diete, egoe- ra hobeto kudeatzeko oina-



Batez ere, gazteak gehiago ibiliko diren guneeetan zentratuko dira.

**Taldetxoak
kalean dabilzan
gazteekin egongo
dira, aurrez aurre**

**2. gunean alkohol
tasa neurtzeko
alkoholimetra
egongo da**

rrizko jakintza izan dezaten. Adibidez, alkohola kontsumi- tzen denean, garrantzitsua da elikatu eta ondo hidratatzea. Horregatik, ura eta fruitu si- kuak banatuko dituzte gazteen artean.

Sasoia enpresako kideak, aldiz, *Jolastu Dagigun!* ize- neko 2. gunean egongo dira. Gune horretan egongo dira zuzeneko kontzertuak. Herriz herriko jaietan alkoholemia maila neurtzeko postuak jar-

tzen dituzte, eta Ibilaldia ez da salbuespena izango. Postu ho- rretan askotariko informazioa banatuko dute, eta gura due- nak bere alkohol tasa jakiteko aukera izango du.

Horregaz batera, gazteenga- na hurreratu-ko dira egunean zehar. Gazteekin egotea eta drogen arriskuez prebenitzea dira helburuak. Ai Laket-eko kideen moduan, ura, janaria eta diptikoak ere banatuko di- tuzte, besteak beste.

HEMEN DA IBILALDIA!

Euskararen alde jarduteko, kuadrillakoekaz ito arte barre egiteko, familiagaz egoteko, lagun barriak egiteko... ondo pasetako eguna.

Baina, disfrutau gura horretan, batzuetan kalte egin ahal deusagu, bai geure buruari, bai besteei; adibidez, alkoholagaz edo beste droga batzuek pasetan garenean.

Hori dala-eta, halako sustantziaren bat hartu orduko, galdetu egiozu zeure buruari:

**BENETAN ZUK GURA DOZULAKO DA, ALA BESTEEK EGITEN DABELAKO?
MOMENTU HORRETAN, KOMENIGARRIA DALA PENTSETAN DOZU?
HARTU EZKERO, HOBETO PASAUKO DOZU?
ZER HARTU BEHAR DOZUN BADAUKIZU?
ETA LARREGI HARTZEN BADOZU, ZER?**

Gustora eta zentzuz ospatu DAGIGUN!



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

ADIKZIOEN PREBENTZIOA
Askatasun Etorbidea, 11 - DURANGO
Tel.: 946 200 520

Jazza eta ganbera-musika, 2016ko Eleizetan zikloa ixteko

Biharko eta etziko kontzertuak dira Zornotzako programazioko azkenak

> MUSIKA I.E.

Asteburu honetako bi emanaldi-ekin amaituko da Zornotzako aurtengo Eleizetan musika zikloa. Maiatzeko bost egunetan, auzoetako baselizetara ganbera-musikaren zuzeneko emanaldiak ekarri ditu ziklo horrek.

Jatorri desberdinetako bi musikari elkartetik sortutako proiektua izango da entzungai bihar, San Antonio Elgezabal baselizan. Ablaye Cissoko korajotzaile eta abeslari senegaldarra eta New Yorken bizi den Volker Goetze tronpetista alemana dira musikariak. Jazza eta Senegalgo musika uztartzen dituzte. Youssou N'Dour-en kontzertu baten aurretik jo zuten Cissokok eta Goetzek lehenengo, 2001ean, eta ordutik dihardute elkarrekin.

Afrikako griot tradizioko “berben maisuei” omenaldia egiteko 2014an kaleratu zuten *Djaliya* diskoa aurkeztuko dute Cissokok eta Goetzek, Zornotzan. Hamabost kantako erreper-
torioa eskainiko dute.

Duela lau urte ere Eleizetan zikloaren barruan jo zuen Brussels Virtuosi taldeak itxiko du, domekan, Zornotzako aurtengo Eleizetan. Maiatzaren 29an,

Hamabost kantako erreper-
torioa eskainiko dute Cissokok eta Goetzek, Zornotzan, bihar

Duela lau urte ere Zornotzan jo zuen Brussels Virtuosi taldeak itxiko du zikloa, domekan

Emanaldiak hasi baino ordu erdi lehenago aterako da doako autobusa Gudari kaletik

12:15ean, Etxanoko Andra Mari elizan izango da hitzordu hori.

Marc Grauwels flautista belgikarraren ekimenez sortu zuten, 1981ean, Brussels Virtuosi taldea. Musikari gazteek osaturiko ganbera-orkestra da, eta ordutik, hainbat kontzertu eskaini dituzte munduan zehar, hainbat bakarlari ezagunek lagunduta. Domekan, Zornotzan, Marc Grauwels flautista, Jean-Frédéric Molard biolinista eta Vincent Hepp biola-jotzailea izango dira bakarlariak.

Cimarosaren, Stamitzen, Mendelssohnen eta Brévalen konposizioak eskainiko ditu Brussels Virtuosi Zornotzan, eta hurrengo egunean, maiatzaren 30ean, Bartzelonako Palau de la Musica arituko da.

Eleizetan programako beste hiru emanaldietan bezala, asteburuko bi kontzertuetara joateko ere autobus berezia jarriko dute. Gudari kaletik irtengo da autobusa; bihar San Antonio Elgezabalera, eta etzi Andra Mari elizara joateko.



2014an kaleratu zuten 'Djaliya' diskoa aurkeztuko dute Cissokok eta Goetzek.



Musikari gazteek osaturiko ganbera-orkestra bat da Brussels Virtuosi.

300 musika ikasleren emanaldiak, Zornotzan

Ikasturte amaierako kontzertuak egingo dituzte



Maiatz hasieran Emusik jaialdian jo zuten Zubiaur musika eskolako ikasleek.

> MUSIKA I.E.

Ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte, gaur hasi eta hiru astez, Zornotzako Zubiaur musika eskolako ikasleek. Txistulariak izango dira emanaldia eskainiko duten lehenak (gaur, 18:00etan, Zelaia-
tan), eta datozen asteetan beste hainbat instrumentu jotzen dituztenen zein dantza ikasten dutenen txanda izango da.

300 ikaslek parte hartuko dute emanaldi horietan: lau urte-
tik hasi eta 75 urte arterainoko musikariek. Musika klasikoa,

herrikoia, eta pop eta rock kantak ere eskainiko dituzte. Txistu doinuak ezezik, pianoa, flauta, trikitixa, perkusioa, gitarra, bateria eta kantua ere izango dira entzungai.

Dozena bat egunetarako ipini dituzte hitzorduak, eta Zelaia-
tako auditorioan eta kontzertu aretoan, Zornotza Aretoan, Zelaia parkean eta frontoian izango dira emanaldiak.

Kontzertu horien guztien leku eta orduen agenda Ametx erakundearen webgunean (www.ametx.eus) dago ikusgai.

Etzi arte dago Durangon ikusgai Alberto Palomeraren erakusketa

Maiatzean egon da Palomeraren lana Durangoko Arte eta Historia Museoa


> PINTURA I.E.

Maiatzean zehar Durangoko Arte eta Historia Museoa ikusgai egon den Alberto Palomera margolariaren erakusketa bisitatzeko azken aukerak izango dira asteburu honetan. Zapa-
tuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara egongo da erakusketa zabalik.

Observo y experimento izenburua du Palomerak Durangon ipini duen erakusketak, eta liburuen, ezagutzaren eta bidaiei inguruko bere ikuspuntua helarazten du artista eta irakasleak. “Beste era batera begiratzeko” gonbita egiten du erakusketa horretan Palomerak.

Berbaldia ere eskaini du Palomerak, asteon, Durangon: *Modos de ver en los parámetros de la mirada*. *Observo y experimento* hitzaldia eskaini du margolari eta irakasleak, Museoa. Berbaldiaren ostean, bere erakusketan zehar bisita gidatua ere eskaini du artistak.

Gure egunerokoan darabil-
tzagun “ikusteko erak aztertzea beharrezkoa” dela uste du Alberto Palomerak. Dio, “irudien gizartean murgildurik”, begirada nekatuta eta asetuta daukagula egunero iristen zaigun irudi jario handiagaz. Bestalde, “irudi mediatikoaren eta artis-
tikoaren artean desberdintzen” ikasteko, begirada trebatzea ere beharrezkoa dela uste du Palomerak. “Irudi mediatikoak erakarri, alienatu eta lelotu egiten gaitu”, dio. Irudi artistikoak, aldiz, “gizakiari on egiten dioten estimulu emozional eta estetikoak sortzen ditu”.



Bidaiez dihardu, besteak beste, Palomerak erakusketan.

Alfredo Barrainkua Zallo | Iurreta Lanbide Heziketako irakaslea

“Enpresek ikasle prestatuak behar dituzte aplikazioak moldatzeko eta garatzeko”

Iurreta Lanbide Heziketako zentro integratuak aplikazioen inguruko ziklo berria eskainiko du datorren ikasturtetik aurrera



> HEZKUNTZA

Teknologia berriek geroz eta pisu handiagoa dute irakaskuntzan eta enpresa arloan. Ildo horretatik, Iurreta Lanbide Heziketa Ikastetxeak teknologia berrien inguruko eskaintza zabaltu du datorren ikasturtera begira. Alfredo Barrainkua informatika mintegiko kidea elkarrizketatzen egon gara, eta argibideak eman dizkigu Informatikako ziklo berri bati buruz: Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena goi-mailako heziketa zikloari buruz, alegia.

Ikasleek zer ikasiko dute ziklo berri honetan?

Gaur egun, Internet, mugikorrak eta aplikazioen garapena egungo garapen teknologikoen zati funtsezkoak dira. Informazioa lortzeko gailuak ugaltu egin dira, betiko ordenagailutik tablet eta mugikorrera pasatuz. Hau ikusita, aplikazioak gailu berri hauetara moldatu beharra dago, eta app berriak sortu ere bai. Hori da gure ikasleek ikasiko dutena ziklo berri honetan.

Erronka interesgarria da, baina hau aurrera eramateko zein teknologia ezagutu beharko dute ikasleek?

Besteak beste, programazioa plataforma anitzetan garatzen ikasi beharko dute: Java, Python, PHP... lengoaiak erabiliz, adibidez. Sistema eragile desberdinak ere ezagutu behar dituzte, Android, iOS eta Mac OS X. Informatikako beste arlo garritsuenetako bat ere jorratuko da; datu-baseen kudeaketa, administrazio eta erabiltzaile mailetan.

Teknologiaz aparte, ikasleek beste gaitasunik jorratuko dute?

Ikasleek taldean egiten dute lan, proiektuak ebatziz eta oinarritzko gaitasunak garatuz (antolamendua, autoikasketa, problemak ebaztea, sormena,...) eta lidergo eta proaktibitate gaitasunak ere landuko dituzte, gaur egun enpresa munduan ezinbestekoak direnak. Metodologia arinak erabiliz eramango dituzte proiektuak

aurrera, garapenerako ingurune eta proba bateratuez baliatuz.

Ikasleen ikuspuntutik, zein berezitasun aipatuko zenuke Iurreta lanbide ikastetxeko ziklo berri honi buruz?

Ikastetxean bultzatzen ditugun teknologia gehienak software librekoak dira, mundu profesionalean oso egokiak direlako. Hau kontuan hartuta, duela urte batzuk Linux Essentials zentro homologatu egin ginen. Honeguz gure ikasleek titulu profesional bat lortzeko azterketa egiteko aukera dute. Aipatzekoa da, gainera, ikasketak guztiak euskaraz egiten direla.

“*Ikasleek taldean egiten dute lan, proiektuak ebatziz eta oinarritzko gaitasunak garatuz*”

Ziklo hau ikasi ostean, lan aukera asko izango dute ikasleek?

Bai. Mugikor, tablet... ugalketa gera ezina da, eta enpresek beren aplikazioak moldatu beharko dituzte eta aplikazio berriak garatu ere bai. Lan hauek guztiak egin ahal izateko, profesionalki prestatutako jendea beharko delakoan gaude. Kontuan izan behar da ikasketak praktikoak direla. 350 ordutan enpresetan egiten dituzte praktikak, eta praktiken ostean aukera izaten dute lanean jarraitzeko. Ikasle batzuek praktikak atzerrian egitea aukeratu dute, beste kultura eta bizimodu batzuk ezagutzeko.



www.iurretalhi.eus - 944 66 88 00

Administrazioa

Automozioa

Elektronika

Fabrikazio Mekanikoa

Gizarte eta Kultur zerbitzuak

Informatika

Ziklo guztiak euskaraz

Aurrematrikula: Ekainaren 6tik 17ra
Prematricula: del 6 al 17 de Junio

Matrikula: Uztailaren 11tik 15era
Matricula: del 11 al 15 de Julio

Berria!!
APPen
garapena



Iurretako eta Elorriori Zaldua gehitu zaie Ohorezko Mailan

Zaldibarko taldeak igoera lortu du, eta lehenengoz arituko da Ohorezko Mailan

> FUTBOLA J.Derteano
Ohorezko Maila Durangaldeko derbiez beterik etorriko da hurrengo denboraldian. Aurretik bertan dauden Iurretakori eta Elorriori Zaldua gehitu zaie. Zaldibarko taldearentzat ez da nolanahiko erronka izango, klubaren historioan lehenengoz jokatu dute eta maila horretan.

Joan zen zapatuan lortu zuten igoera, Solobarria futbol zelaia bete-beteta zegoela. Partidu handia zen, eta zaleek ez zuten hutsik egin: kamiseta zuri berdeak nonahi, animo pankartak han eta hemen, eta danbor handi batez giroari goian eusteko

ardura zuenen bat ere bai. Zaldubarko Ugeragaren kontra jokatu zuen. Liderrak ziren, baina mailaz igota zeuden zegoeneko. Zelaian garbi igarri zen nork zuen zerbait jokoan. Zaldubarko taldeak igoera lortu du, eta lehenengoz arituko da Ohorezko Mailan. Zaldubarko taldearentzat ez da nolanahiko erronka izango, klubaren historioan lehenengoz jokatu dute eta maila horretan.

Emaitza horregaz amaitu zen partidua. Ekaitz arriskuarengatik deituta zegoen alerta horiak txanpain zaparrada ekarri zuen, azkenean, Solobarriara.

Omenaldiak

Atsedendian Haritz Garcia, Txomin Iturralde eta Aritz Areitioaurtena jokalaria omendu zituzten urte askoan Zaldubarko egindako ekarpenagatik. Garcia 17 urte eman ditu klubean, Iturraldek 9 eta Areitioaurtenak 8. Kimu eta haur kategorietan jaso zituzten euren ligetako txapeldun izan direlako.



Garcia, Iturralde eta Areitioaurtena oroigarri banagaz, alboetan gaztetxoek mailako txapeldunak dituztela.



Partiduan zehar zein amaieran, ospakizuna eta jai giroa nagusitu ziren.

Bizkarrak denboraldiko lehen garaipena Aragoi

Bizikletako lan bikaina korrika errematatu zuen

> TRIATLOIA J.D.
Gorka Bizkarrak mañariarrek denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen joan zen asteburuan, Aragoiko Tarazona Triatloian (Distantzia olinpikoa). Aurretik Aragoi

sekula lehiatu gabea zen. Igerian galdutako denbora bizikletarekin gaineko erakustaldi batez berreskuratu zuen. Korrikako 10 kilometroetan ere eritmo altuari eutsi zion, eta bakarrik helmugaratu zen: 2.08.48



Gorka Bizkarrak Tarazonako podiumean.

Ajuriak bigarren amaitu du Zegama-Aizkorri

Hiru urtez segidan errepikatu duen postua da



Aitor Ajuria eskuman, podiuma osatu zuten korrikalari biek. Zegama Aizkorri

> KORRIKA J.D.
Aitor Ajuria otxandiarrek bigarren amaitu du Zegama Aizkorri junior mailako lasterketa. Hirugarren urtez segidan errepikatzen duen postua da. Junior mailan parte hartu duen azken aldian, inoiz baino gertuago

izan du garaipena: irabazlearengandik zazpi segundora geratu da.

Zegama Aizkorri Lasterketa nagusian, berriz, Erlantz Zaldunbidea (55.) eta Oihana Azkorbebeitia (10.) izan dira eskuatutako onenak.

Pilotalekua lepo Berasaluzeren omenaldirako

> PILOTA J.D.

Berriztarrek merezitako agurra egingo diote gaur Pablo Berasaluzeri. Espero zen moduan, salgai jarritako sarrera denak erraz saldu dira, eta ia 300 lagunek goraino beteko dute pilotalekua.

Gaurko jaialdia 21:00etan hasiko da. Lehenengo, Oizpe pilota elkarteak pilota partidu bi antolatu ditu: nesken paleta gomako eta mutilen esku pilotako bana. Ostean, pilota partidu profesional bi izango dira: atarikoan Agirrek eta Galarzak Arteaga II-aren eta Apraizen kontra jokatu dute. Partidu nagusian Pablo Berasaluzek Ibai Zabalagaz jokatu du. Bikote berriztarra Danel Elezkanoren eta Alvaro Untoriaren kontra arituko da.

Igoeragaz amets egitera heldu den Ezkurdik maila handiko liga txapelketa osatu du

Seigarren postuak ez du islatzen euren ibilia; denboraldiko zati luzean igoera hatz puntekin ukitu dute



Etiket kanpora maila handia erakutsi dute; etxean, aldiz, ohi baino eskasago aritu dira.

> FUTBOLA J.D.

Denboraldi amaierako balorazioak taldearen testuingurua kontuan hartuz egin behar dira. Taldeak asmatu ote du bere

baliabideei etekinik handiena ateratzen? Ezkurdik seigarren tokian amaitu du Lehenengo Erregionala, baina postu horrek ez du islatzen Durangoko

talde xume honen denboraldia. Mailako beste talde askok baino baliabide ekonomiko baxuagoagaz igoera postuen borrokan ibili da ligako zatirik

handiengan. Lehenengo itzulia, esaterako, igoera postuetan amaitu zuten: "Meritu handiko denboraldia osatu dugula uste dut", dio Iñigo Larrañagak (entrenatzailea Gorka Morenogaz batera).

Aurreko urteetan euren indargune izan diren etxeko partiduetan huts egin dute: "Hor egon da gorago ez amaitzeko gakoa. Puntu asko joan zaizkigu etxean. Ez dakit zer gertatu zaigun, ze gure indarguneetako bat etxeko partidua ziren. Esaterako, orain urte bi, Bigarren Erregionaletik igo ginen. Arripasuetan ez genuen partidurik galdu". Aitzitik, kanpoan mailako bigarren talderik onena izan dira. Liga osoan batutako 53 puntuetatik 25 Durangotik kanpora eskuratu dituzte.

ADITUAREN TXOKOA

OIHANA AZKORBEITIA

Mendi lasterketak



Zegama-Aizkorri 2016

Aurreko zapatuan, Zegama Aizkorri mendi maratoiaren bezperan, txoria zuhaitzetik behera botatzeko moduko beroa egin zuen. Hori bai, eguraldi aldaketa zegoen iragarritan. Gauean, oineztarriek eta trumoiak hartu zuten lekua, eta euri zaparrada mardulek bedekatu zuten maratoiko ibilbidea, iretargi betearen begiradapean. Biharamunean, lasterketa egunean, hego hai-zeak lastandu zituen gure berna, beso eta aurpegi irribarretsuak irteera gunean, baina mendian gora kilometroak egin ahala, laster egin zuen behera tenperaturak, (bezperan baino hogeitaka gradu gutxiago), eta gure aurpegiak ez zuten irteerako poza islatzen. Zegamako bezperako bero itogarritik edurra egiteko moduko hotzera pasatu ginen Aizkorriko tontorrean.

Astinaldi ederra hartzen du gorputzak Zegamako maratoian, eta zer esanik ez halako eguraldi makurra eginez gero. Inoiz edur artean ere egin ditugu ibilbideko tarte batzuk, maiatzaren bada-ki-eta edurra egiten, baina domekako maratoia infernu bilakatu zen korrikalariontzat. Aratzeko txingorraldia, gailurreriako haize fin eta hotza (arnasa mozteko modukoa), hezurretaraino bustita...

Ez zen marka ona egiteko eguna. Helburua helmugara iristea zen, osorik. Antolakuntzakoek ere bazekiten, eta Aizkorriko tontorrean zira janzteko eskatzen ziguten, jakinda ordurako zenbatek utzi behar izan zuten lasterketa hipotermiak jota. Zira baino lagungarriagoak egin zitzaizkidan jendearen animoa eta berotasuna, eta Alluitz eta Ametz semeekin helmugaratzea.

Etxaniz eta Garcia Bizkaiko txapeldun

Paleta goman eskolarteko txapelketa irabazi dute

> PALETA GOMA J.D.

Leire Etxaniz iurretarrak eta Mara Garcia durangarrak Bizkaiko txapelketa irabazi dute paleta goman, eskola kiroleko gaztetxoaren mailan. Elkarrekin txapelketa hau irabazten duten

bigarren aldia da. Mungian jokatu zen finala. Lehen partidua 12-8 irabazi zuten. Ondoren, Etxanok hanka bihurritu, eta lesionatuta jardun zuen. Hala ere, bigarren partidua ere irabaztea lortu zuten: 12-11.



Mara Garcia eta Leire Etxaniz, Mungian.



Ezkerrean Zaldi Baltzako xakelariak, taldeko kamiseta horiagaz.

Zaldi Baltzak seikote txapelduna du kimuetan

> XAKEA J.D.

Elorrioko Zaldi Baltza xake taldeko gaztetxoak indartsu datoz. Joan zen domekan, harrobiko xakelariak eskola kiroleko Bizkaiko txapelketa irabazi zuten kimu mailan. Mungiako Alkartasuna aretoan jokaturako fina-

lean, Sabine, Maddik, Aroak, Ametsek, Manexek eta Ibaik osatutako seikoteak 8.5 puntu batu zituen, Zuri Baltza taldeak baino 1.5 gehiago. Conteneo taldeko gaztetxoak sailkatu ziren hirugarren. Getxorentzat izan zen laugarren postua.

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404



JATETXE GIDA

ÑAM!



OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO

Tel.: 946 200 864

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.

www.olajauregi-jatetxea.com

ÑAM!



LA GIPUZKOANA JATETXEA

Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA

Tel.: 946 811 005

Aste bitarteko menua. Afariak ostiral eta larunbatean. Bereztasuna, "arrautza apurtuak". Menu bereziak enkarguz.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

www.plateruena.eus

ÑAM!



KANBIO JATETXEA

San Migel Dueda auzoa

AMOREBIETA-ETXANO

Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€

bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.

75 lagunentzako jangela.



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Presion Break talde berriztarrak hirugarren maila on bat bete du

Etorkizunera begira, diru-laguntzen esperoan dago mailari eusteko



Hirugarren mailan aritu den aurreneko urtea izan da.

> ARETO-FUTBOLA P. Bustindui Berrizko Presion Break areto-futbol taldeak nota oso altuagaz amaitu du hirugarren mailan

bete duen lehen denboraldia. Taldea mailari eusteko egin zegoen arren, hasieratik goiko postuetan ibili da joko trinko eta

ausarta erakutsiz. Bigarren itzulian ahulgune bat pasatu ondoren, zazpigarren postuan amaitu du. “Denboraldi hasieran hone-

lako denboraldia egingo genuela esango baligute, denok sinatuko genuen”, dio Vicente Refoyo jokalaririk.

Areto-futboleko ohikoa ez den intentsitate handiko jokoa erakutsiz, oso talde gogorra dela erakutsi dute hasieratik. Azken hilabeteetan, baina, lanorduen ondorioz ezin izan dituzte ohiko lan saioak egin, eta fisikoki asko nabaritu du taldeak. “Kirolean esaten den moduan, entrenatzen den moduan jokatzeko da, eta entrenamenduetan izan ditugun bajek ez digute utzi gure maila fisiko altua ematen”, adierazi du jokalaririk.

10.000 euro behar ditu Presion Break taldeak hurrengo urtean hirugarren mailan taldea aurrera ateratzeko. Udalen diru-laguntzen esperoan dauden bitartean, datorren denboraldia prestatzen hasi dira. “Ekonomikoki, eta kirol mailari dago-kionez, talde trinkoa osatzeko gauza ez bagara Euskal Ligara jaitsi beharko dugu”, azaldu du Refoyok.

Jose Antonio Sagarnaga da Iurretakoko presidente berria

> FUTBOLA J.D.

Aurreko zuzendaritza osoak batera dimititu ostean, Iurretako Kirol Taldea gidatuko duten ardura berriak bilatzeko prozesua hasi zen. Hautagai-tza bakarra aurkeztu da, eta talde horrek osatuko du IKTKo zuzendaritza datozen lau urteetan.

Jose Antonio Sagarnaga da presidentea, eta Jose Miguel Cerezo presidenteordea. Idazkari lanak Jose Miguel Gomezek egingo ditu, eta diru kontuetaz Jorge Izquierdo arduratuko da. Hiru bokalak Herminio Blanco, Pedro Villagrasa eta Unai Rodriguez dira. Blanco futbol arloko koordinatzailea ere izango da legegintzaldi honetan.

Barrutia kanpora

Iurretakoko zuzendaritza batzorde berria heldu, eta egun gutxira hartu du lehenengo erabakia: lehenengo taldeko entrenatzaile aritu den Rafa Barrutia kargutik kendu du. Oraindik ez dute ordezkorik jakinarazi.

Bizkaiko onenak, eta Euskadiko podiumean

Zuazubiskar eta Unzueta bietan nabarmendu dira

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Joan zen asteburuan Berriatuko lasterketa berean Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak jokatu zituzten. Illart Zuazubiskar abadiñarra eta Alex Unzueta berriztarra elite mailako biga-

rren eta hirugarren sailkatu ziren Euskadiko txapelketan, hurrenez hurren. Bizkaiko onenak ere izan ziren: Ondorioz, Illart Zuazubiskar Bizkaiko txapelduna da, eta Unzueta, berriz, txapeldunordea.



Illart Zuazubiskar Bizkaiko txapelagaz Unzueta gaz batera.

Arabako Itzulian etapa bat irabazi du Garciak

Beste batean podiumera igo da; itzulia 10. amaitu du



Beste Alde La Tostadorako txirrindularia etapa garaipena ospatzen.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Indarra, zuhurtzia eta erregulartasuna. Gontzal Garciak dohain horien guztien jabe dela erakutsi du Arabako Itzulian. Bigarren eguneko etapa garaipenagaz lasterketa ondo neurtzeko gaitasuna eta sasoi aparta

erakutsi zituen. Azken metroetan, errepidea gorantz zihoala, une aiposean eraso jo eta erraz nagusitu zen.

Gainera, itzuli osoan eutsi dio mailari: lehenengo etapen podiuma zapaldu zuen, eta sailkapen nagusia 10. amaitu du.

Abadiñoako igerilariak 24 domina Sestaon

> IGERIKETA J.D.

Abadiño-Astola igeriketa taldeko kideek Sestaoko Trofeoan parte hartu dute, eta bertan 24 domina irabazi dituzte senior, junior eta haur kategorietan: urrezko eta zilarrezko bederatzina eta brontzezko sei. Dominak irabaztea eta nork bere

denborak hobetzea izan zuten helburu. Azken horretan, nesken erreleboetako taldeak iaz toki berean lortutako marka sei segundotan hobetu zuen. Marka horregaz zilarra jantzi zuen Irati Urizarrek, Jone Astorkiak, Maialen Belokik eta Olaia Zuberok osatutako taldeak.



Abadiño-Astola igeriketa taldeko kideak dominak kolporatuta.

> AGENDA
> PILOTA
MASTER KAIOLA
22 urtez azpikoak: - Espinal / Apaolaza - Prado / Mendi Gazte maila: - P. Etxebarria - Atutxa · Barikuan, 18:30ean, Zornotzako pilotalekuan.
22 urtez azpikoak: - Rodrigo / Elorriaga - Garmendia / Mendi Gazte maila: - Salaberria / Sein - Zubizarreta / Murua · Zapatuan, 18:30ean, Zornotzako pilotalekuan.
22 urtez azpikoak: - Arandia / Iturbe - Iruira / Pagaza Gazte maila: - Telletxea / Garcia · Domekan, 10:30ean, Zornotzako pilotalekuan.
BIZKAIKO HERRI ARTEKOA
- Zornotza-Galdakao · Barikuan, 20:00etan, Zornotzako pilotalekuan.
> BIZIKLETA MARTXA
BERRIZKO VII MARTXA ZIKLOTURISTA (ekainak 5)
· Izen ematea: ekainaren 2ra arte: berrizbizikletarielkarte.com. 15 euro lizentziadunak; 25 gabekoak. 5 euroko deskontua webgunearen bidez eginda. Egunean bertan ere egin daiteke



Orain **berria** *laguna*

gehiago da

> berria.eus/berrialaguna

BERRIAlaguna bazara

Sortu kontua

eta gozatu abantailez!

berria.eus/berrialaguna

Zure ekarpenari esker,
aurrera goaz!

berria
mundua·euskarari·emana

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserririk ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalel 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserririk ikusgarria Martza inguruan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserririk bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baserririk ederra, Murgoitio zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

SASIKOA



• 90 m2: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. **290.000€.**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 111 m2 erabilgarri, 4 logelarekin, egongela handia, 2 komun, hiru balkoi, garajea eta ganbara. **259.000€.**

MARTXOAREN 8 KO



• Oso egoera onean dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela sukaldea jarrita, esekitokia, 2 komun, eurretako bat leihoarekin, ganbara eta garajea. **250.000€.**

TROMPERRI



• 99 m2 eraikita. 4 logela, egongela zabala, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Kanpo aldera begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Eraikinak teitatuak terraza komunitarioa dauka. Txoko komunitario handi bat ere badauka. **243.900€.**

FCO IBARRA



• 105 m2 erabilgarri. 4 logela, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoi 1. Igogailua. Berogailua. **230.000€.**

IURRETA Etxebizitza estreinatze



• 2 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, balkoi handia. Garajea itxia eta ganbara velux eta guzti. **245.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- MATIENA. K/ Laubideta. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. 155.000€.

- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoi. 130.000€.

- AZKEN ETXEBIZITZA. Estreinatze. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Terraza. Trastelekua. Garajea. 159.000€.

- SAN FAUSTO. Zeharmendieta. 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.

- IURRETA. Maspe. 2 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. Ikuspegi ezin hobea. 111.500€.

- IURRETA. 3 logela handi. Komuna. Egongela eta sukaldea. Igogailua. Berogailua. 125.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- MENDIZABAL. 131 m. 3 logela. 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea itxia. 270.000€.

- IURRETA. DENA BERRIA. 3 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Berogailua. Igogailua. Trastelekua. 155.000€.

- F. J. ZUMARRAGA. Apartamentua. Erdi-berria. 155.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100m2. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

- J.OLAZARAN. Apartamentua. Logela 1. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. 155.000€.

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m. 2 Logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.

- M.TORRE. 134 m2. 4 Logela. 2 Komun. Sukaldea-Jangela. Egongela terrazarekin. Ganbara. Bi garaje tuki. Eguzkitsua 299.000€ negoziagarria.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi-berria. 3 Logela. 2 Komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. 270.000€.

- TABIRA. Erdi-berria. 105m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Ganbara eta garajea.

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelaiarekin. 170.000€.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi-berria. 3 logela. 2 komun. Trastelekua. Garajea.

- MATIENA. Trañabarren. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Ganbara. 196.900€.

- TXALET. 330m2. AUKERA. 380.000€.

- ABASOLO. 84m2. DENA BERRIA. 199.000€.

- ABADIÑO. Iturritxo. 111m2. 2 logela. Sukaldea. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. 215.000€.

- AMOREBIETA. 70 m2. 2 logela. Komuna. Berriatua. 160.000€.

- ATIKOA. 35m2-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.

- ANBOTO. 3 logela. Komuna. Sukalde handia. Egongela. Balkoi. Berogailua. Igogailua. Bizitzen sartzeko prest.

- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Terraza. Trastelekua. Garajea. 230.000€.

- A. EZTEGIZ. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Igogailua. 155.000€.

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. Berriatua. Eguzkitsua. 140.000€.

- ZUMALAKARREGI. 65 m. (Bulegoa izateko egokia).


LOKALAK SALGAI, ETA ALOKAIKUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114m2. SALGAI.

- IBAIZABAL. 50m2. Guztia jarrita. 500€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:

Tel.: 946 217 902

publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezuac: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizita eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU
Berriz. Etxe ederra herri barruan. Oso eguzkitsua da. Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.
Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.
Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m2 azalera eraikiak. Tel.: 695-77 31 41.
ERRENTAN EMAN
Berriz. Pisu alogagai Berrizen. 3 logela. Tel.: 639-42 54 43.
Durango. Barrenkalen logela bateko apartamentua alokatzen da. Guztiz berritua eta oso argitsua. Deitu. Tel.: 615-73 60 36.
Iurreta. Pisu alogatzen da, 2 logela, igogailua. Zubiaurre kalea. 530 euro. Tel.: 695-71 00 69.
OPORRETAKO ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN
Oropesa de Mar (Castello). Oropesa de Marren (Castello) apartamentua alogagai ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean. Hondartza aurrean. Inguru pribatua aparkalekuarekin, gune berdearekin eta igerilekuarekin. Tel.: 616-09 04 69/946-20 32 33.
Vieux Boucau (Landak). Apartamentu bat alokatzen da Landetan, Vieux Boucau herrian. Boucanier erresidentzian dago. Uztailan eta abuztuan alokatzeko. Tel.: 675-71 93 63 (Durangaldea).

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA
Berriz. Berrizen gela bat alokatzen da. Erdi-erdian. Autobus eta tren geltokitik bi minutura. Tel.: 600-37 04 71/615-75 21 36.
GARAJE / TRASTEROAK
SALDU
Otxandio. Otxandion garaje itxia salgai. Tel.: 675-71 72 93.
ERRENTAN EMAN
Durango. Durango erdian, Plateruen plazan garaje bat alokatzen da. Tel.: 656-78 02 15.
GAINERAKOAK
ERRENTAN EMAN
Berriz. Berrizen pabilioi bat alokatzen da. 2 solairu ditu, bakoitzak 330 m2. Argia eta ura. Bide ertzean, autobidetik 5 minutura. Tel.: 656-73 81 88 // 616-17 71 91.
Teknologia
GAINERAKOAK
EMAN
Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.
Lana - negozioak
LAN ESKARIAK
OSTALARITZA
Durangaldea. Lana bilatzen nabil sukaldeko laguntzaile moduan. Barruko langile moduan ere bai. Tel.: 663-98 37 78
PERTSONAK ZAINDU
Elorrio. Uztailan zehar, arratsaldetan, astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko prest. Esperientzia handiko neska naiz. Tel.: 688-64 06 04.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen edo sukaldean lan egin nahi dut. Tel.: 631-12 70 29.
Durangaldea. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 722-39 62 33.
Durangaldea. Lan bila nabil barneko zein kanpoko langile moduan, orduka eta asteburuetan ere bai. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziagaz. Tel.: 619-38 47 38.
Durangaldea. Neska arduratsua ekainean eta uztailan umeak zaintzeko lan bila, goizez zein arratsalde. Tel.: 688-66 11 78.
Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 632-16 37 82.
Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientziaduna. Barneko langilea zein orduka. Tel.: 633-80 89 31.
Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen gizon bat naiz. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 612-48 14 70.
Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 602-32 06 50.
Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 632-57 35 54.
Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Malgutasuna ordutegian. Tel.: 609-88 79 21.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbitasunean ere bai. Barneko edo kanpoko langilea. Tel.: 631-36 95 87.
Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Garbitasunean jarduteko prest. Tel.: 688-95 95 75.
IRAKASKUNTZA
Durangaldea. Batxilergoko ikaslea naiz, eta prest nago Lehen Hezkuntzako zein DBH 1, 2 eta 3ko ikasleei klase partikularrak emateko. Tel.: 688-66 87 68.
GAINERAKOAK
Durangaldea. Lan egiteko prest nago, edozein sektoretan. Tel.: 663-98 37 78.
Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil eraikuntzan eta soldatzaile moduan. Baserrian edo lorezaintzan ere jarduteko prest. Esperientziagaz. Tel.: 674-90 14 38.
Durangaldea. 19 urteko mutila edozein lan duinetarako prest. Tel.: 699-25 29 62.
LAN ESKAINTZAK
ETXEKO LANAK
Zaldibar. Zaldibarren laguntzaile pertsonala behar da herrira etorritako pertsona bati laguntzeko. Hiru ordu astelehenetan eta ordu bi eguenetan. Kontratuarekin. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es .
GAINERAKOAK
Elorrio. Ile-apaintzaile lanpostua daukagu Nukleo ile-apaindegian. Tel.: 946-58 29 96.

Denetarik
SALDU / EROSI
Latxa arrazako aharia salgai. Latxa arrazako aharia saltzen dut. Hiru urte. Tel.: 946-21 82 57.
Ibilgailuak
AUTOAK
SALDU
Megane scenic salgai. Megane Scenic salgai.1.6 Dinamique. 2007 Tel.: 676-20 28 55. Posta: arantza58@hotmail.es .
FURGONETAK
SALDU
Furgoneta. Volkswagen California T5 4 Motion Confortline salgai. Tel.: 646-32 34 94.
OPORRAK/BIDAIK
SALDU
Karro-denda saldu nahi dut. Elorrio. Ondo zaindua. Bi logela eta abantzia dauzka. Prezio ona. Tel.: 678-35 16 62.
GAINERAKOAK
SALDU
Elektroestimulagailua salgai. Elektroestimulagailua S6 saltzen dut. Ia berria. Tel.: 630-98 50 56.
Familia - etxea
ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIK
SALDU
Frijigailu dietetikoa saltzen dut. Estreinatu gabea. Freimatic markakoa da. Tel.: 630-98 50 56.
GAINERAKOAK
AURKITU
Txoko bila. Txoko familiar baten bila Durangaldean. Tel.: 688-92 41 17.
EMAN
Txakurkumeak erregalatzen dira. Txakurkumeak erregalatzen dira. Tel.: 626-28 65 23.

MAIATZEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

SALTSAN KATERIN.
MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

IBILALDIA 2016.
ARROPA
• Txaketa
• Izerditakoa
• Kamiseta

OPEN KLUB.
BONOA
10 emanaldiko bonua instalazioa nahierara erabiltzeko eta, gainera, nahi adina klase gidatu egiteko aukera.

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Mohamed Xukriren "Hutsegiteen garaia" liburua eta Eskean Kristö taldearen "Eskean Kristö" CDa.

URBASA ABENTURA.
MULTIABENTURA
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.

ABANTAILAK

- Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

AGENDA

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 27an, 22:00etan, Elorriko Arriolan

'El cielo ahora'

Oholtzan Isaak Erdoiza dantzari abadiñarra daukan dantza ikuskizuna eskainiko dute, Arriolan, gaur. Mitologiari buruzko gogoetak dira Olatz de Andresek zuzenduriko ikuskizunaren ardatza. Andres eta Erdoizagaz batera, Natalia de Miguel eta Pilar Andres ere izan dira ikuskizunaren sortzaile, eta laurak dihardute interpretazioan ere.



Erakusketa

:: DURANGO

MAIATZAREN 29ra arte

Alberto Palomeraren
'Observo y experimento,'
Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 31ra arte

Durungaldeko mapak,
Iturri kultur etxean.



Musika

:: BERRIZ

MAIATZAREN 27an

22:00etan, Autumn Comets,
Kultur Etxean.

:: DURANGO

MAIATZAREN 27an

19:00etan, Bartolome Ertzilla
Musika Eskolako combo
kontzertua, Plateruenean.

MAIATZAREN 28an

13:00etan, Kantulagun
kalez kale, Plateruenean.

21:30ean, Durangoko
Metal Fest,
Plateruenean.

22:00etan, Iron Fist + Puto
Bastardo, Sapuetxen.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 28an

20:00etan, Ablaye
Cissoko eta Volker Goetze,
San Antonio Elgezabal
baselizan.

MAIATZAREN 29an

12:15ean, Brussels Virtuosi
Ganbera-orkestra, Etxanoko
Andra Mari elizan.

EKAINAREN 3an

21:30ean, Cifu kantautorea,
'La otra acera de la
luna' diskoa aurkezten,
Bernagoitin.



Kontalaria

:: DURANGO

MAIATZAREN 28an

12:00etan (3-5
urtekoentzat) eta 12:30ean
(seitik gorakoentzat), Saioa
Aizpurua kontalariaren
'Ipuin desberdinak',
Liburutegian.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 27an

20:00etan, Miguel Angel
Montillaren 'Cuentos entre
sábana y manta' Herri
Bibliotekan.



Afaria

:: DURANGO

MAIATZAREN 27an

20:30ean, afari beganoa,
Sapuetxe Gaztetxean.



Berbaldia

:: DURANGO

MAIATZAREN 31n

18:15ean, Josu Novo
psikologoa, Doluari
buruz, Adinekoen zentroan.

EKAINAREN 2an

18:30ean, tertulia feminista:
'sexu langileak', Pinondon.

19:00etan, 'La ciudad y el
agua', Jose Rodriguezen
eskutik, Museoa.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 31n

19:00etan, 'Egeo itsasoan
errefuxiatuekin izandako
bizipenak' berbaldia, Iturri
kultur etxean.




Dantza

:: DURANGO

MAIATZAREN 27an

22:00etan, 'El cielo ahora',
Arriolan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Alicia a través del espejo

- **barikua 27:** 19:30/22:00
- **zapatua 28:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 29:** 16:30/18:45/21:00
- **astelehena 30:** 18:30/21:00
- **martitzena 31:** 20:00

Noche real

- **barikua 27:** 19:30/22:00
- **zapatua 28:** 19:30/22:30
- **domeka 29:** 18:45/21:15
- **astelehena 30:** 18:30/21:00
- **martitzena 31:** 20:00

Mas allá de las montañas

- **barikua 27:** 19:30/22:00
- **zapatua 28:** 19:30/22:30
- **domeka 29:** 18:45/21:00
- **astelehena 30:** 18:30/21:00
- **martitzena 31:** 20:00

Angry birds



- **zapatua 28:** 17:00
- **domeka 29:** 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

Nuestra hermana pequeña

- **zapatua 28:** 22:00
- **domeka 29:** 20:00
- **astelehena 30:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Alicia a través del espejo

- **barikua 27:** 20:00
- **zapatua 28:** 17:00/19:30/22:00
- **domeka 29:** 17:00/20:00
- **astelehena 30:** 20:15

MAIATZEKO AGENDA



27

XIII. LITERATUR LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

13:30 DBH, BTX, Helduak.
15:00 Lehen hezkuntza.

MAIZTEGI GURASO ELKARTEA

17:00 Patinaia.
17:30 Euskal dantzak.
18:30 Zirkoa.

HELDUEN IPUIN KONTALARIA

20:00 Miguel Angel Montilla "Cuentos entre sábanas y manta".

28

MAIZTEGI HERRI ESKOLA GURASO ELKARTEA

9:45 Cross.
11:00 Multikirola.
12:30 Nin-Jutsu.
13:00 Ginnasia erritmikoa.

OHARRAK

Herri bibliotekaren berrantolaketa lanak direla eta, biblioteka zerbitzua etenda dago. Ekainerarteko egitarauarekin jarraituko da, inolako aldaketarik gabe.

AITA SAN MIGEL JAI BATZORDEA

Iurretako Aita San Migel jaietako "Kartel lehiaketa": Lanak aurkezteko azken eguna 2016ko ekainak 17, Ibarretxe Kultur Etxean. Baseak Ibarretxe Kultur Etxean eta Iurretako Udaleko Web orrian.

GU BE BAI RUNNERS-IURRETA

Astelehenak eta asteazkenak. IBILI + ARINEKETAN. Iurretako plaza. Informazio gehiago: Ibarretxe Kultur Etxea. Tel.: 946 200 342 / gizarte-ongizatea@iurreta.eus.

Ekainaren 3an, 21:30ean, Zornotzan

Cifu valentziarra Bernagoitin

'La otra acera de la luna' diskoa aurkeztera gonbidatu du Zornotzako Bernagoiti auzoko kultur elkarteak Sergio Cifuentes 'Cifu' kantautore valentziarra. Erritmo flamenkoak, rumba eta rocka darabiliza Valentziako kantautoreak bere konposizioetan.

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguziateneko 14:00ak arteko epea



> Abadiñoako **Libek** urtetxo bat bete zuen maiatzaren 25ean. Zorionak eta musu handi handi bat familia guztiaren partez!



> Zorionak, **Nahia**, zure bosgarren urtebetetzean! Ondo pasau zure eguna!



> Zorionak, **Aitor**, Gallanda kaletik!



> Pasa dan maiatzaren 15ean **Aimar** etorri zen gure bizitzara poztasuna ematera. Ongi etorri bixotza!



> Etxeko sorgintxuek 8 urte egin ditu gaur. Zorionak etxekoan partez ta musu handi bat!



> Zorionak, **Irantzu**, zure urtebetetzean. Musu handi bat Oierren, zure senarraren eta gurasoen partez.



> Eskerrik asko Marisa Urien eta laguntzaileei maiatzaren 14an prestatutako bazkariarengatik. "Aurreko kuadrilako" lagun partez.



> Zorionak, **Izarne**, zure txikitxuen partez! Disfrutau zure egunaz!



Ermodo, 11 - DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Idoia (632 znb.)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 27 • 09:00-09:00
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 28 • 09:00-09:00
Navarro Arteakale 6 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-13:30
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango

De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño
Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-14:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

DOMEKA, 29 • 09:00-09:00
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ASTELEHENA, 30 • 09:00-09:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MARTITZENA, 31 • 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUAZTENA, 1 • 09:00-09:00
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUENA, 2 • 09:00-09:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza



MIREN RODRIGUEZ


Bihotz-hodietako osasuna

Bihotz-hodietako gaixotasunek eragiten dute heriotza gehien Espainiako Estatuan, eta Espainiako Osasun Ministerioaren arabera, bihotz-hodietako gaixotasunak eragiten dituzten arrazoiak %75 faktore hauei lotuta daude: tabakismoa, sedentarismoa, hipertentsioa, diabetesa eta gizentasuna. Bihotzaren Mundu Federazioak nabarmentzen duenez, kontrolatzeko, tratatzeko edo aldatzeko moduko faktoreak dira honako hauek:

Arterien tentsio handia: odoleko presioaren mailak normalizat jotzen diren balioetatik modu jarraituan igotzea da (presio sistolikoa 160 mmHg-tik gorakoa denean eta diastolikoa 90 mmHg-tik gorakoa). Faktore pertsonalek eragina ager daiten, ingurumenari lotutako faktoreek eragina (adina, elikatzeko ohiturak, bizimodua), edo faktore genetikoengatik: arteria tentsioak gorantz egiteko joera izaten du adinarekin, eta ohikoa izaten da agertzea norbera gizen badago, dietan gatz ugari hartzen badu eta potasio gutxi (berdura, fruta, fruitu lehorrak, lekaleak, osoko zerealak), alkohol asko edaten badu, ariketa fisikorik egiten ez badu, edo estres psikologikoa pairatzen badu. "Hiltzaile isila" esaten zaio, gehienetan ez baita sintomarik edo larritzeko zantzurik agertzen, eta jende asko ez da jabetzen gaitz hori duela.

Tabakismoa: kasu honetan, bihotz-hodietako gaixotasunak izateko arriskua handiagoa da emakume erretzaileengan, gizon gazteengan eta erretzeko ohitura handia dutenengan.

anboto.org
MUGIKORREAN



Albisteak, agenda

Telefono gida

Parte hartu

Herriko informazioa jaso

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !

“Dena eman dit musikak, eta ez naiz inoiz aspertu edo nekatu”

‘Eleizatan’ egitarauaren barne omenaldia egin diote, aurtan, erretiroa hartuko duen musika irakasleari

> AKUILUA Aitziber Basauri
Lagun mina duen Jose Javier Lacalle ‘Laka’k egindako koadroa eta lore-sorta jaso zituen Ana Rosa Erdoizak Zornotza-ko Udalak egindako omenaldian. Pianoa eta akordeoia jotzen ditu. Hala ere, erretiroa hartzeko den honetan dioenez, “gaur egun txeloa izango litzateke nire instrumentua”.

Nola joan zen omenaldia?
Sopresa handia izan zen, denak zeuden ados jarrita: musika eskolako maisuak, udaletxeak, familia.... Ikasle baten kontzertua entzuteran joan nintzen, eta alkateak nire izena esaterakoan, hitzik egin ezinik geratu nintzen. Oso hunkigarria izan zen. Ikasleek lore-sorta ematerakoan, negar egiteko aprobe txatu nuen; ezin eskerrak eman ere. Ez nuen kontzertua entzun.

Oso pozik, orduan?
Bai, oso pozik! Gehien gustatu zaidana egin dut bizi guztian, eta ogibide izan dut, gainera. Zortea baino gehiago da hori!

Zenbat urte musika irakasten?
18 urte gaz hasi nintzen. Bizi osoa. Nire eskolan lehenengo, eta gero, Zubiaur musika eskolan. Oso pozik ibili naiz.

Willems metodoa erabili duzu musika irakasteko, ezta?
Metodo asko daude, baina, nire iritzian, Edgar Willemsek Jacques Chapuisegaz sortutakoa da onena. Barrenetik sentitu behar da musika, gero sortzeko. Horixe lantzen dugu. Zortzi urtera arte musika barne-

ratzen ikasi behar da eta gero, musika idatzi eta irakurtzen.

Edonork ikasi dezake musika?
Bai! Oker fisikorik ezean, edonor hezi daiteke horretan. ‘Ez dut belarri ona, ezin dut abestu’ dioten hori gezurra da.

Zu zeu zenbat urte gaz hasi zinen musika ikasten?
Oso berandu, 14 urte gaz; 19 urte gaz amaitu nuen. Gerora, Chapuisegaz ere ikasi nuen, Bartzelonan. Sentitu nuen zerbait gehiago esan gura nuela. Escuderogaz armonia ikastera ere joan naiz Donostiara.

Klaseak eman eta hartu egin dituzu aldi berean.
Ikasi egin behar da, ezin da duntunagaz lokartu. Behar direnak baino baliabide gehiago eduki behar dira. Beti izan naiz ipurterrea, eta orain ere bai. Ingelesa ikasten hasi naiz orain.

Erretiroa hartuta, badakizu zelan bete denbora...
Lan piloa dut. Horrexegatik jubilatuko naiz. Iloa gazteenak azterketa du Leioan, eta hartuz gero, eskolak hartzera eramango dut, astean 3-4 egunez. Lehenengo, 2. biolina izan da EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra). Oso pozik dago. Jarraitu gura du, eta lagundu egingo diot.

Zure geneak ditu?
Bai, ez dakit (barrez). Nagusia ere badabil pianoa eta trikia ikasten, baina ez du astirik. Gazteenari, berriz, eguerdiro laguntzen diot klaseak emanda.

Diziplina handia behar da?
Bai. Gauza asko utzi behar dira alborra, eta umeak jolasa gura du. Klaseetan inplikazioa ere behar da, gurasoena barne, etxean lagunduta.

Txikitatik hasi behar da?
Hizkuntzak eta musika denek ikasi behar lituzkete, eta txiki-txikitatik. Musika oso garrantzitsua da. Batzuek berezkoa dute erritmoa. Baina, lateralitatea, psikomotritizitatea, mugimendua... ere lantzen dira.

Zenbat umeri eman diezu musika?
Ez dakit! Milakari!

Zer eman dizu musikak?
Bizitzetako

ko poza. Besterik egiten ez dakit. Piloa gustatzen zait gainera. Hori bai, erakusteko, ez oholtzara igotzeko. Hori ez!

Eta zuk musikari?
Dena. Eta inoiz ez naiz aspertu edo nekatu. Dena eman dit eta dena eman diot.

Musikak piztiak gozatzeko ditu?
Ez dakit, ez dut frogarik egin. Umeak bai (barrez). Zentzurik onenean, limurtu egin behar dira umeak. Geurean eka- rri. Oso ondo ikasten dute, eta ez dute edozer jotzen.



LAUHORTZA

ITSASO GANGOITIA
Hezitzailea



Abadiño, merke eta on?

Sarreran biribilgune bat; saltoki handiak eta merkataritza lurzoru bilakatu nahi dituzten eta eraiki ezin diren lurrak. Horixe da gure herria batzuentzat.

Azken urteetan, Abadiño-ko Murueta auzunea eta inguruak multinazionalen kokaleku desiratu bihurtu dira; metro karratuaren kon- kistan hipermerkatuak, ki- rol-denda kate handiak, han- burgesa etxe erraldoiak... Autoa aparkatzeko edota jaisteko arazorik gabe, eros- le konpultsiboen paradisu. Baina, kontsumo eredu zen- tralizatu eta makro hau al da nahi duguna?

Berdin dio, ez digute gal- detuko! Abadiño-ko Udalak uko egin dio hainbat merka- tarik eta herritarrek merka- taritza-gunearen inguruan eskatutako herri-galdeketa egiteari.

Eta bien bitartean, Duran- galdeko herriak batzen di- tuen bidegurutzetik urrun, kale artean, komertzio txi- kia kezkatuta bizi da. Ardu- raz bizi dute Abadiño-ko eta Durangaldeko komertzio txikietako jabeek Murueta- ko merkataritza-gunearen azken urteetako bilakaera; handia handiago, eta txikia akabo. Kontsumo-katearen azken katebegia baitira den- dari txikiak, eta herritarron erosketa ohituren gora-behe- rak gertuen sentitzen dituz- tenak.

Ez dut ukatuko. Kontrae- sanak kontraesan, nik ere sa- rri erosten dut kate eta mar- ka handietan saskia eroso- go eta azkarrago betetzearen aitzakian. Baina (ba)nago, kontsumo merkea ez ote du- gun garesti ordainduko.

Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak



www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

Andaluziara edo Costa Doradara bidaiak irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiak zotz egingo dugu uztailaren 15ean

EROSKI bidaiak
Anbotoren? Egia da!